

"Erraustegia nahi dutenek ere ez lukete horrelakorik hartuko etxe ondoan"

Pedro Lasagabaster
Mankomunitatea > 06



OSASUNA

Haurren minbiziaren inguruko hitzaldi jendetsuak Bergaran > 02-03

ARRASATE

Eibar eta Irungo merkataritza esperientzietaz jardunaldiak > 10

ARETXABALETA

Osasun etxean jaio zen umea eta ama etxera etortzekoak ziren > 14

ERRUGBIA

Nesken errugbi taldea dago Arrasaten, eta hasi dute liga > 15

AZPIEGITURAK > BIDEGORRIA

Bidegorriak eskatzeko, bizikletan irten ziren ibarreko eta kanpoko 150 lagun

IBILALDIA Oñati-Arrasate-Oñati ibilaldia egin zuten adin guztietako gizonezko eta emakumezkoek herenegun

JAI GIROA Koloretako puxikekin eta musikaren laguntzarekin, jai giroan egin zuten bidegorrien aldeko aldarrikapena

SINADURAK Bukaeran, Oñatiko plazan, bidegorri sarearen aldeko sinadurak batu zituzten, aurreikusita egon gabe > 05

G2a

Debagoieneko umeak 'Kantari' hasi dira, Oñatin, oraingoan

Amaia Txintxurretaren gidaritzapean hasi zen GOITBren *Kantari* karaoke ikuskizuna Oñatiko gaztelekuan. Zapatuan eta domekan, Debagoieneko 8 eta 12 urte bitarteko umeek, eta hain ume ez zirenek ere, Oñatin izan zuten zita. Aurreikusten zen bezalaxe, jende ugari gerturatu zen gaztelekura. Joan den aste bukaeran 120 gaztetxok parte hartu duten arren, bailarako 550 haurrek hartu zuen parte udan egindako aukeraketa saioretan. Taldeka zein bakarka, giro aparta eta alai sortu zen Oñatin. > 23



DENOK BATERA Oñatiko gaztelekuan, parte-hartzaile batzuk, aurkezlearekin, *Kantari*-ko abestia kantatzen.

JOSETXO ARANZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Sailkatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

POLITIKA > LEGEA

Memoria Historikoa eta ibarra

Francoren erregimeneko ikur eta aztarna gehienak aspaldi kendu zituzten Debagoieneko herrietatik. Hala ere, gutxi batzuk oraindik badaude. Espainiako Memoria Historikoaren Legearen arabera, gehienak kendu egin behar dira. > 04

EKONOMIA > UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FONDOA

Ibarrerako 33,8 milioi euro dago Foru Fondotik

Debagoieneko zortzi udal gipuzkoarrek 33,8 milioi euro jasoko dituzte aurten, Foru Aldunditik Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren (UFFF, aurrerantzean) bidez. Batez beste, iazko kopuruaren aldean, %12,59 igoko da aurten jaso beharrekoa; iaz baino lau milioi euro gehiago da hori. Igoera altuena Leintz Gatzagak du -%14,48-, baina Debagoieneko herri guztieta-ko ekarpena igo da Gipuzkoaren batez bestetik gora, %9,8 baita batez besteko hori, eta Debagoiengan, herri guztiak gaintitzen dute: hala, igoera txikiena %10,73 da, Elgetaren kasuan. > 04

KIROLA > XAKEA

Alain Prietok irabazi zuen txapelketa

Azken jardunaldian Aitor Alcaide aretxabaletarraren aurkako partidua irabazi ondoren, Alain Prietok irabazi zuen Arrasate Hiria Xake txapelketa. Abadiño-ko 22 urteko jokalaria horrek 1.000 euro eta garaikurra eroan zituen sari modura. > 22



JARDUNALDIAK Ezkerretik hasita, Juan Jose Carmona Aspanovaseko presidentea eta Maite Olaizola, Jose Javier Uriz eta Jose Maria Indiano jardunaldietan parte hartu zuten doktoreak.

JOSETXO ARANZABAL

OSASUNA > HAURREN MINBIZIA

Umeen minbiziari aurre egiteko, aita-amak eta adituak, argibide bila

ASPANOVAS Haur Minbizidunen Guraso Elkarteak jardunaldiak egin zituen zapatuan, Bergaran, eta gurasoek eta adituek hartu zuten parte

BIZIRAUPENA Umetan ohikoenak diren minbiziak, leuzemia edo linfoma, gaixorik dauden haurren %80k gainditzen ditu

HERIOTZA Umeekin heriotzaz nola berba egin behar den eta haur bat galtzeari nola aurre egin dakioken azaldu zuten jardunaldietan

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Euskadiko Haur Minbizidunen Guraso Elkarteak (Aspanovas) antolatuta, umeen minbiziaren gaineko jardunaldiak izan ziren zapatuan Bergaran. Gaitza gertutik bizi duten edo bizi izan duten gurasoak zein senideak eta gaiarekin harremana duten adituak zeuden, batik bat, entzuleen artean.

Umeak elkarteko begiraleekin utzi ostean, minbiziaren gaineko jakintza osatzeko eta esperientziak elkartrukatzeko baliatu zituzten jardunaldiok.

ETA MINBIZIAREN ONDOREN, ZER?

Hori izan zen Jose Maria Indiano Bilboko Basurto Ospitaleko Onkologia Pediatriko Unitateko buruak bere jardunerako aukeratutako gaia. Indiano doktoreak berak tratatutako gaixo baten kasua kontatu zuen.

Bizirautea lortu zuen, minbizia izan arren. Doktoreak azaldu zuen gaixoaren beldurra ez zela hiltzea, ilerik gabe geratzea baizik: "Gaur egun, minbizia antzematen zaien hamar umetik zazpi sendatu egiten dira. Izan ere, bizirautea lortu dutenek urteta-

"Gaur egun, minbizia antzematen zaien hamar umetik zazpi sendatu egiten dira"

ko ikerketen onuradunak dira". Gaixok ere sendagileei asko irakatsi diete: "Euren mediku historietatik, asko ikasi dugu; besteak beste, nola gaindi daitekeen minbizia, edo epe luzera zein ondorio izan ditzaketen kirurgiak, erradioterapiak edo kimioterapiak".

Indiano doktoreak esan zuen, orain dela gutxira arte, minbizidun haurrak bizirik irautea zela sendagileen helburua. Horren adierazle da, egun, Europan, mila heldutik bat umetan minbizia izan eta gainditu duena dela. Bes-

talde, umetan ohikoenak diren minbiziari, leuzemiari edo linfomari, %80k egiten die aurre. "Hori ez da lortu sendagai berriekin, lehengoak modu berritzailean erabiliz baizik". Epe luzera, ordea, albo-ondorioak eragin ditzakete tratamenduek. Ondoriorik ohikoenak dira bihotzeko eta tiroide-guruineko arazoak eta bularreko minbizia. Hortaz, gaixoak modu egokian kontrolatzea beharrezkotzat jo zuen Jose Maria Indianok: "Baina arazoa da osasun sistema ez dagoela gertatuta kontrol horiek egiteko eta,

"Kasu batzuetan egoki zaintzeak beste batzuetan sendatzeak adina garrantzi du"

"Umeak eta gazteak bizitzarako prestatzen ditugu, ez heriotzarako"

helduak izan arren, kontrolak pediatrek egiten dituzte. Etorkezuneko erronka da horretarako unitate bereziak izatea".

Minbiziaren ostean, beste edozein bezala bizi izatea da helburua, eta gogoan, minbiziaren oroitzenak baino gehiago, horri aurre egiten lagundu dietenak geratzea.

NEUROBLASTOMA

Hitzaldi tekniko batek hartu zuen lekua gero. Donostia Ospitaleko Onkohematologia Pediatriko unitateko sendagileak neuroblastoma izan zuen hizpide. Neuronen zeluletako tumorearen nondik norakoak azaldu zituen.

ZAINKETA ARINGARRIAK

Gaur egun, minbizia duten haurren ehuneko handi batek gaintzen du gaixotasuna, baina badira hiltzen direnak ere. Umeen %20-25 bizitzako azken fase horretara iristen dira, eta horientzat beharrezkoak dira zainketa aringarriak. Horretaz jardun zuen Maite Olaizola Donostia Ospitaleko Zainketa Aringarri zerbitzuko arduradunak.

Zainketa aringarriak dira, hain zuzen ere, gaixoen eta familien bizitza kalitatea hobetzen dutenak, sufrimendua eta mina arinduz, arazo fisiko, psikologiko, sozial zein espiritualetan erre-

paratuz. "Tratamendua egin arren, gaitzak garatzen jarraitzen badu, heriotza gertuago ikus genezake; umeen kasuan, gainera, tartea txikia da. Orduan, egokiena da tratamendua uztea eta ahalik eta zaintzarik egokiena ematea gaixoari. Izan ere, kasu batzuetan, egoki zaintzen jakiteak beste batzuetan sendatzeak adina garrantzi izan dezake", azaldu zuen Olaizola doktoreak.

Donostia Ospitaleko Zaintza Aringarrien Unitatearen nondik norakoen berri eman ostean, umeen zaintzari dagokionez esan zuen: "Umeek, egoera horretan, euren pediatria, minean aditua den norbait eta behar emozionalak beteko dituen norbait behar dute. Umeen heriotzari zentzua aurkitzea zaila den arren, horretan lagunduko dieten profesionalak behar dituzte umeek eta familiek, ospitalean eta etxean".

DOLU PROZESUA

Gaitza gainditzen dutenen kasuak azaldu zituzten, heriotza aurreko umeek eta zaintzaz hitz egin zuten eta Aspanovas elkarteko psikologo Mari Jose Gonzalezek heriotza osteko doluaz egin zuen berba. Hark argi utzi nahi izan zuen dolua ez dela hil dena ahaztea, galera horrekin bizitzen ikastea baizik: "Badirudi ezin dela heriotzaz hitz egin. Haurrak eta gazteak bizitzarako prestatzen ditugu, ez heriotzarako. Baina umeek oso gogoan daukate heriotza eguneroko bizimoduan".

Umeekin heriotzaz nola berba egin azaldu zuen psikologoak, eta gaineratu zuen gehiegizko babesa ez dela ona. Heriotzaren aurrean azaltzen diren jarrerak izan zituen hizpide: gaixo dagoen umearena, anai-arrebena, gurasoena eta lagunena. Hitzaldia amaitzeko, umeak galdu dituzten elkarte baten gogoeta helarazi zien bertaratutakoiei: "Etorkizuneko pozak ez ditzatela euren oroitzenak akabatu, baina oroitzenak ez ditzatela etorkizuneko pozak akabatu".

Poza eta etorkizuna indarrarekin uztartu eta jakintzaz bete egingo diete aurre minbiziari umeek eta senideek.

Jose Javier Uriz > Pediatra

"Minbizia duten umeek, askotan, gurasoek baino adore handiagoa azaltzen dute"

I.A. > BERGARA

Donostia Ospitaleko Onkohematologia Pediatriko Unitateko sendagilea da Jose Javier Uriz doktorea. Neuroblastoma izan zuen hizpide jardunaldietan; guri, oro har, umeen minbiziaren gaineko hainbat azalpen eman dizkigu.

Nola esaten zaio ume bati minbizia duela?


Umearen adina hartzen dugu kontuan; izan ere, 6-7 urtera arteko umeek ez lukete ulertuko. Gurasoei esan eta gero, euren pentsatzen dute umeari nola esan. Gehienetan, gaixotasun bat duela azaltzen diete, txarrak diren zelulak dituztela, eta, kentzeko, tratamendua egiteko denboraldi bat egin beharko dutela erietxean. Nerabazarotik gertuago daudenekin, egokiena da egitik gertuen dagoena jakitea. Hainbat gurasok minbizia hitza erabili gabe azaldu nahi izaten diete gaitzaren gaineko informazio zehatza, askok minbizia heriotzarekin lotzen dutelako. Umearen galderi erantzutea da beste bide bat.

Gogorra da umeendako, ezta?

Txikiendako, zailenak ospitaleko lehen egunak dira; gero, ohitu egiten dira, batik bat, tratamenduak oso gogorak ez direnean. Nagusiagoen kasuan, askok laguntza psikologikoa behar izaten dute, bizitza hankaz gora jartzen zaielako, eta gurasoek ezin dietelako lagundu, euren ere eragin egin dielako.

Tratamendu mota asko dago?

Askok uste du kimioterapiarekin tratatzen direla minbizi guztiak, baina, kimioterapiaren barruan, 40-50 medizina daude aukeran. Minbizi batzuk ebakuntzarekin senda daitezke; beste batzuk, bi edo hiru hilabeteko kimioterapia saioekin; beste batzuk, bi urtean banatutako kimioterapia saioekin... Gurasoei esaten diegu euren kontura ez ikertzeko, guk azalduko diegula euren umeari dagokion tratamendua.



IRATI AGIRREAZALDEGI

"Umeetan minbizi motarik ohikoenak leuzemiak eta linfomak izaten dira"

"Gehienetan errazagoa da minbizia umetan sendatzea helduagoak garenean baino"

Zein dira umetan maiz gertatzen diren minbiziak?

Ohikoenak leuzemiak eta linfomak dira, hirutik bat. Ondoren daude garunekoak, nerbio-sistema zentralakoak; neuroblastomak; eta giltzurrunekoak.

Umeek nola egiten diete aurre minbiziari? Eta gurasoek?

Gaur egun, minbiziari dagokionez, umeek helduek baino aurreiritzi gutxiago dute. Gurean, batik bat, nagusiagoak eusten diete sendatuko diren itxaropenari. Askotan, gurasoek baino adore handiagoa azaltzen dute umeek. Gurasoendako, hasiera, batik bat, zaila da, umea mendeko bihurtzen delako.

Minbizia senda daitekeen gaitza da?

Datu orokorren arabera, batez beste, umeetan tratamendua amaitu eta bost urtera gaitza ez dutenak hirutik lau dira. Leuzemien kasuan, %80tik gora sendatzen dira. Errazagoa izaten da minbizia umetan sendatzea helduagoak garenean baino.

PAILAZOAK ERE, MINBIZIA DUTEN HAURREKIN ELKARLANEAN

Marimototsi mototsak eroriko zaizkio Pirritx eta Porrotxen hurrengo ikuskizunean

Pirritx eta Porrotx pailazoen disko berria aurkeztuko dute aurki. Aurten goan, diskoa eta ikuskizun berria gertatzeko, minbizia duten gaztetxoak hartu dituzte ardatz. Minbiziaren etapa bat gaintu du Ane Perez Alberdi elgoibartarrak, eta pailazoen parte hartu du proiektu berrian. "Orain dela urtebete ezagutu nituen Porrotx eta Marimotots, ospitalean. Euren esan zidaten nire gelatik irten eta Porrotxek Marimototsi esan ziola hurrengo urtean mototsak jausiko zitzaizkiola. Hortaz, nire esperientzian oinarrituta, istorio bat gertatu dute, non Marimototsek minbizia duen, transplantea egiten dioten...", dio Anek. Harritzekoa da minbizia bezalako gaitz gogor baten aurrean nolako adorea azaltzen duen Anek: "Egun bakoitza aprobetxatu behar da, ez dakigulako hurrengoan zer etorriko den. Horregatik, elkartearen begirale lanetan dihardut, beste batzuei laguntzeki niri ere mesede egiten didalako", esan digu.

Pailazoen hurrengo ikuskizuna, beraz, umeendako ez ezik, gurasoendako ere irakasgai izango da, eta umeen minbizia gizarteratzeko eta umei modu errazean ulertaratzeko balioko du. "Diskoan, nik neuk bi abestitan hartu dut parte, eta kantuen arteko ipuinetan ere jarri dut ahotsa; elkarteko umeek koroak egin dituzte, eta elkarteko eta ospitaleko jendearen ahotsa ere jasoko du diskoak". Ane Perezek eskerrak eman nahi dizkie prozesu luze bezain gogorrean aldamenean izan dituen deniei.



Minbiziak jotako umeak Aspanovas elkarteko kideak eta Donostia Ospitaleko kideak ibili dira pailazoen lanean.

ASPANOVAS

EKONOMIA > UDALEN FINANTZAKETARAKO FORU FONDOA

Debagoienak 33,8 milioi jasoko du Foru Fondotik, aurreikusi baino lau gehiago

Gipuzkoako batezbestetik gora igo da ibarreko udalek jasoko dutena

Ogasun sailak jaso beharrekoa %9,5 igoko da; hala, aurrekontuak gainditu egin dira

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Debagoieneko zortzi udal gipuzkoarrek 33,8 milioi euro jasoko dituzte aurten Foru Aldunditik Udalen Finantzaketarako Foru Fondoren (UFFF, aurrerantzean) bidez. Batez beste, iazko kopurua

ren aldean, %12,59 igoko da aurten jaso beharrekoa. Igoera altuena Leintz Gatzagak du -%14,48-, baina Debagoieneko herri guztietako ekarpena igo da Gipuzkoaren batez bestetik gora, %9,8 baita batez besteko hori, eta Debagoienean, herri guztiek gaintzen dute: hala, goera txikiena %10,73 da, Elgetaren kasuan.

Deigarria da Aldundiaren aurrekontuetan kalkulatu baino lau milioi gehiago egongo dela azkenean Debagoieneko herrien artean banatzeko. Oro har, Gipuzkoa osorako, 38,5 milioitan igo da aurreikusitako kopurua, 372 milioitik 432ra.

OGASUN EMAITZA ONAK

Datu horiek joan den astean jakinarazi zituen Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza sailak,

2007rako eta 2008rako Ogasunak jasoko duen diruaren aurreikuspenen informazioarekin lotuta. Izan ere, UFFFa zergen bidez batzen den dirutik kalkulatu da. Ogasun eta Finantza sailak

azaldu zuen moduan, aurten, Gipuzkoako Ogasunak iaz baino %9,54 gehiago jasoko du, 4.357 milioi euro baino gehiago, hain zuzen ere, eta horrela azaltzen da UFFFa ere igotzea.

DATORREN URTERAKO

Bestalde, 2008. urterako aurreikuspenak ere gertu ditu Foru Aldundiak; horien arabera, datorren urtean, 39,9 milioi euro inguru jasoko dute Debagoieneko Udalek, hau da, aurten baino sei milioi euro pasatxo gehiago.

Kasu horretan ere, udal gehienak Gipuzkoako batez bestetik (%16,40) gora igoko dira: goera handiena Aretxabaletak izango du (%22,81). Batez beste, debagoienar bakoitzeko 688,1 euro jasoko dute Udalek.

Kontuan hartu behar da, datorren urtean hasita, Ekonomia Ekintzen Zerga kenteagatik onartu zen konpentsazioa Udalek jasoko duten kopuruan sartzen dela, hortik goera. Ogasun sailak 4.568 milioi jasotzea espero du datorren urtean.

Debagoieneko udalek jasoko dutena

	2007AN	IGOERA	2008RAKO AURREIK.
Antzuola	1.248.375,33 €	%13,72	1.331.290 €
Aretxabaleta	3.833.374,93 €	%13,26	4.156.490 €
Arrasate	13.758.272,51 €	%11,96	14.419.100 €
Bergara	9.178.766,32 €	%11,43	9.574.270 €
Elgeta	658.697,05 €	%10,73	690.290 €
Eskoriatza	2.379.696,71 €	%13,36	2.538.570 €
Leintz Gatzaga	235.173,81 €	%14,48	236.030 €
Oñati	6.613.520,10 €	%11,79	6.958.630 €
GUZTIRA	33.823.086,5 €		39.904.670 €

POLITIKA > MEMORIA HISTORIKOAREN LEGEA

Frankismoko ikur batzuk daude oraindik Debagoienean

Francoren Gobernuak egindako etxebizitza batzuek oraindik hori aldarrikatzen dituzten zeinuak daukate

Frankismoa goraiatzaren duten ikurrak kentzea agintzen du Memoria Historikoaren Legeak

L.K. > BERGARA

Debagoienean garai baten egon ziren ere Frankismoaren ikurrak denon bistara, baina gehienak aspaldi kendu ziren. Ez, ordea, guztiak; eta orain, horiek dituzten herrietako udalek Espainiako Kongresuak onartutako Memoria Historikoaren Legeari jaramon egin beharko diote.

Horrelako kasu bat Aretxabaletan dago. Han, Bedarreta auzoko etxebizitza bloke batzuk Francoren gobernuak egindakoak dira; eta, ohitura zen moduan, hori aldarrikatzen duen ikurra hantxe dago oraindik. Hala, etxe bloke baten goialdean kartel handi bat dago, eta, behebarruen zenbakiaren plakan ere, erregimen haren sinbologia dago.



BEDARRETA Aretxabaletako Bedarreta auzoan, Francoren erregimenak egindako blokeak.

JOSETXO ARANZABAL

Legearen 17. artikulua haxe esaten du: "Estatuaren jabetza eraikeen titularitatea edo mantenua daukaten erakundeek neurriak hartuko dituzte armariak, insigniak, plakak eta gerra gogorarazten duten beste aipamen batzuk kentzeko, orduko alderdi bakar bat goraiatzaren dutenean edo Espainian orduan ezarri zen erregimenarekin iden-

tifikatzen direnean". Salbuespen bakarra dago: "hori ahalbidetzen ez duten arrazoi artistiko, arkitetniko edo interes orokorreko bestelako batzuk daudenean", edo "bakarrik norbanakoak gogoratzeko" direnean.

Hortaz, legeari jarraituta, aipatutako sinboloak kendu egin beharko dira, Falangearen ikurrak dituztelako: uztarrria eta

geziak. Hala ere, legea berria da, eta Debagoieneko udal gehienek ez dute gai horretan sakondu, eta ikusteko dago zelan aplikatzen den legea gurean.

Legearen kontura, ABC egunkariak Elgetako Domingo Iturbe kalea ETako Txomin Iturberen omenezkoa zela argitaratu zuen; baina Iturbe hura Ameriketara aberastu zen elgetar bat izan zen.

AZPIEGITURAK

'Euskal Y'-a 2013rako bukatu nahi dute

2013rako lanak bukatuta egoteko aukera dagoela dio Garraio sailburuak

L.K. > BERGARA

Abiadura Handiko Trenaren lanak 2013rako bukatuta egongo dira; halaxe esan zion Nuria Lopez de Gereñu Garraio sailburuak Euskadi Irratiari. Lopez de Gereñuk esan zuenez, "behin lanak hasita" eta "oraingo erritmo bizian" lan egiten bada, mugaduta hura "zilegi" ikusten du.

Europako Batasunak 2010. urtean ipini zuela mugaduta esan zuen Garraio sailburuak, baina, gero, "arrazoi askorengatik", data hori atzeratu egin behar izan zela.

Lursailen jabeek dagokionez, sailburuak esan zuen "eurendako akordio onena" lortzen saiatzen direla.

EAE-ANV-RI DAGOKIONEAN

EAE-ANV-ri gobernaturako herrietan, tartean Arrasaten, lanak oztopatzeko konpromisoa hartu zen. Horren gainean, sailburuak esan zuen "bidezko" ikusten zuela AHTren aurkako iritziak egotea, baina ez lukeela ulertuko "alkate batek biolentzia erabili edo babestea".



ALDARRIKAPENA Ibilaldia Oñatiko plazan bukatu zen; han, sinadurak batu zituzten.

JOSETXO ARANZABAL

GIZARTEA > BIZIKLETAZALEAK

Bidegorrien alde ibili ziren 150 bat lagun

Oñati-Arrasate-Oñati ibilaldia egin zuten Debagoieneko eta kanpoko zaleek, helburu batekin: erakundeei bidegorri sarea eskatzea

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Kolorezko puxikekin, musikarekin eta umore onean batu ziren 150 bizikletazale zapatuan, Oñati-Arrasate-Oñati ibilaldia egiteko eta, horren bitartez, aldarrikapen bat egiteko: Udalei, Mankomunitateari eta Foru Aldundiari "bizikletan ibiltzeko bide sarea egitea" eskatu zieten.

Oñatiko bizikletazaleen elkarrekin, Txirrirkak, antolatzen zuten ibilaldia, eta zale gehienak Oñatikoak, Arrasatekoak eta, gutxiago, Bergarakoak eta Aretxabalekoak izan arren, Bilboko Biziz-

Bizi eta Donostiako Kalapie elkarteko kide batzuk ere etorri ziren Oñatiraino, bat egiteko. Ibilaldia 15:00etan hasi zen; Oñatitik Arrasatera joan ziren, hango kaleetatik ibili eta Oñatiko plazan bukatu zen, 19:00ak aldera.

BIDEGORRIEN FALTAN, ERREPIDEZ Umeak, helduak, nagusiak, norbanakoak zein familiak... denetarik zegoen. "Ikusi da herritarrek begi onez ikusten dutela gure eskaera, bidegorriena", esan du Aitor Ugalde Txirrirkak elkarteko kideak.

Traba batzuk izan zituzten: "Auto-ilarak sortu ziren, eta gidari batzuek pazientzia txikia erakutsi zuten eta bozina jo ziguten. Gainera, motorzale batzuek modu txarrean aurreratu ziguten", azaldu du Aitor Ugaldek. Horren aurrean, bidegorririk balego, errepidetik ibili beharrik izango ez zuketela esaten dute parte-hartzaile batzuek.

SINADURAK

Bukaeran, bat-bateko ekintza bat egon zen: "Bateren batek bidegorrien alde sinatu zuen, eta gero eta jende gehiago ere sinatzen hasi zen", dio Ugaldek. Ez dakite zer egingo duten sinadurekin; euren garrantzitsuena da bidegorrien aldeko aldarrikapena egin zutela.

Andoni Gartzia > Garaia Berrikuntza Gunea

"Teknologia parkeen ekitaldiko emaitzak ikusiko dira etorkizunean"

L.K. > ARRASATE

Joan den eguaztenean eta egue-
nean, Espainiako Parke Teknolo-
giko eta Zientifiko Elkarteak
(APTE) Garaia Berrikuntza Gune-
an egin zuen bere VI. Hitzaldia.
Garaia kudeatzaile Andoni Gar-
tzia oñatiarrarekin egon gara
horren gainean.



Andoni Gartzia.

Goienkaria

Jardunaldiak bukatu dira. Zer moduz?

Oso-oso ondo, uste baino oraindik ere hobeto. 130 lagun bat etorri ziren, Euskal Herri-
tik eta Espainiako erkidego
guztietatik, Kanariak izan ezik.
Portugalgo batzuk ere izan
ziren gurean. Eguenean buka-
tu zen, eta arratsalde horretan
bertan, Euskadiko parkeen
sareko presidentek esan zidan
primerakoa izan zela dena.

Zer nabarmenduko zenuke?

Alfons Cornella izan dugu,
nire ustez, etorkizunera begi-
rako berrikuntzan Europan
dagoen aditu handienetako bat.
Beste lagun garrantzitsu batzuk
ere izan dira: guretik, Ikerlan,
LKS, Ulma, JMA eta beste
batzuk; baita Carlos III. Univer-
sitatekoak, Universidad Pon-
tificiaokoak, Madrilgo, Katalu-
niako, Andaluziako, Extrema-
durako... parke teknologikoe-
tako arduradunak... Horrez
gain, jendeak harremanak egi-
teko aprobetxatu du; jardunal-
diak egunean bukatu ziren,
baina euren emaitzak aurrera
begira ere ikusiko dira.

Azkenik, hitzaldiak eurak
oso interesgarriak izan ziren,
eta enpresa asko zer eta zelan

egiten dabilzan jakiteko auke-
ra izan genuen, eta horretaz
gogoeta egiteko aukera. Mundu-
ko 600 bat kasu dokumentatu
aurkeztu ziren hori azaltzeko.

Garaientzat zer suposatu du ACTERen jardunaldiak hemen egin izanak?

Guretako, jardunaldiok
Arrasaten eta, oro har, Deba-
goienean egin izana oso pozgar-
ria da, eta Garaia arduradu-
nak oso gustura daude.

Jende askok aukeratu zuen
jardunaldiotara etortzea, jakin-
da aste berean beste ekitaldi
batzuk zeudela, esaterako, ikas-
turte inaugurazioa. Hala,
batzuk MUko inaugurazio eki-
taldira joan ziren, baina azken
momentura arte Garaian egon
ziren. Bestalde, askok Arantz-
zuko ekitaldian parte hartu
zuten, eta sorpresa atsegina
izan zen Jorge Oteizaren ingu-
rako emanaldia.

EUSKARA > LAN ARLOA

Etzi, eguaztena, izango da EMUNen ospakizun handia

EMUNen urteurren ospakizunak nazio mailako ordezkariak batuko ditu

L.K. > ARRASATE

EMUN lana euskalduntzeko Arrasateko kooperatibak etzi, eguaztena, egingo du bere 10. urteurreneko ospakizun ekitaldi nagusia. Arrasaten izango da, Amaia antzokian, 17:30ean. Elkarrekin bidea egi-
ten... da ekitaldiaren izena.

Ordu bete lehenago, EMUN eta lana euskalduntzearen inguruko erakusketa egongo da.

OMENALDIAK

Ekitaldi nagusia hasteko, *Hartu eta Emun* ikus-entzunezkoa ikusiko dute. Segidan, berbal-
diak izango dira: besteak beste,
Arrasateko alkatea, Hizkuntza
Politikarako sailburuordea,
MCCko presidenteordeak eta
aldun nagusiak egingo dute ber-
ba. Gero, EMUN sortzen eta
garatzen lagundu dutenak
omenduko dituzte. Bukatzeko,
bertso-antzerkia izango da.

GIZARTEA > PLATAFORMA

Euskal Herriak Bere Eskola Arrasaten ere egongo da

Aretxabaletan eta Bergaran lantalde bana dauka EHBEK

Arrasaten taldea osatu gura dutenendako batzarra deitu dute

L.K. > ARRASATE

Euskal Herriak Bere Eskola (EHBE) plataforma indartuz doa Debagoienean ere, eta hirugarren taldea sortzeko asmoz lanean dabilta Arrasaten. Hala, interesa duten herritar batzuek taldea osatu gura dute Arrasaten, eta batzarra deitu dute hilaren 30erako, martitzena, interesa duten guztiendako. Kulturaten izango da, 19:00etan.

"EHBERen helburua da hezkuntza sistema nazional baten aldeko kideen bilgune izatea; bai-

na, horren barruan, gai asko lan-
du gura ditugu, eta gurasoen,
irakasleen, ikasleen... iritziak
jaso gura ditugu", dio taldeko
kide Eneritz Ugaldek. Hezkuntza
oso arduratzen da EHBE, hau-
reskolatik hasi eta goi mailako
hezkuntzara arte, eta horren
barruko sektore ahalik eta gehie-
nak batzea da helburua. Ugalde-
ren esanetan, "EHBE sortu zene-
an, orain bost urte, muga handia
zegoen: alor honetan kezka zuten
talde asko zegoen, baina ez zego-
en denak batzeko gunerik".

Debagoiena, Debabarrena, Urola Kosta, Urola Erdia, San Mar-
kos eta Sasietako mankomuni-
tateek eta Gipuzkoako Foru
Aldundiak osatzen dute Gipuz-
koako Hondakinen Partzuer-
goa. Debagoieneko Mankomu-
nitategiaren gobernu batzordeak
izendatu ditu ibarreko ordezkariak: Ino Galparsoro (EAE-ANV),
Pedro Lasagabaster (EAE-ANV)
eta Oxel Erostarbe (Aralar).

Pedro Lasagabaster > Debagoieneko ordezkaria Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan

"Erraustegiaren aldekoek ere ez lukete nahiko horrelakorik etxe ondoan"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA
Gipuzkoako Hondakinen Partzuer-
goan ibarreko ordezkari izateaz
gain, Debagoieneko Mankomuni-
tatean Ingurumen Saileko ardura-
dun politikoa da Pedro Lasagabas-
ter. Hondakinen kudeaketa izan
dugu berarekin hizpide.

**Zein dira partzuergoaren egin-
behar nagusiak?**

Gipuzkoako Hiri Hondaki-
nak Kudeatzeko Plan Orokorre-
an aurreikusten diren azpiegitu-
rak sortzea eta kudeatzea. Beste
helburu batzuk badaude, baina,
funtsean, partzuergoa aurreko
agintaldiaren azken partean sor-
tu zen, errauste instalazio fama-
tuaren aldeko apustua egiteko.

**Zein dira aurreikusitako azpie-
giturak? Eta nola sortu eta
ustiatu nahi dira?**

Erraustegia da lehena, eta
horrekin lotura zuzena duten
beste instalazio batzuk daude:
hondakinak enbalatzeko, honda-
kinak erraustu aurretik trata-
tzeko eta zepak egonkortzeko in-
stalazioak. Bestalde, konpostatze
eta transferentzia instalazioak
ere aurreikusten dira. Transfe-
rentzia instalazioa da, esaterako,
Akeikoa. Zaborra hara eramaten
da, eta handik, zabortegietara.
Aurreikuspenen arabera, 2009ra
arte, partzuergoak ez ditu kude-
atuko. 2012ra arte, partzuergoak
kudeatuko lituzke transferentzia
guneak eta zabortegiak. Ondoren,
2012an, erraustegia abian ipini
eta kudeatuko luke.


Konpostatze instalazioei
dagokionez, Lapatzen, Azpeitian,
lanean dihardute horrekin, bai-
na zehazteke dago hango manko-
munitateak ala partzuergoak
kudeatuko duen.

**Ahalik eta hondakin gutxien
sortzeko zer egin daiteke?**

Gizarte eredu goitik behera
aldatu. Denok kontzientziatu
behar gara daukagun eredu ez
dela iraunkorra, eta horrela jarraitu-
z gero, hondamendira goazela.
Zabor gutxiago sortzeko, kontsu-
mismotik aldenitu behar gara, eta
modu egokian kontsumitu, ingu-
rumen irizpideak jarraituz: ber-
tako, biziraupen luzeko eta bilga-
rri gutxiago produktuak kontsumi-
tu, berrerrabili...

**Gurean, badago birziklapene-
rako kontzientziarik?**

Bai, baina horrek ez du esan
nahi arazoa guztiz barneratuta
daukagunik. Azken datuen ara-



Debagoieneko Mankomunitatean Ingurumen Saileko arduradun politikoa ere bada Pedro Lasagabaster.

GOIENKARIA

**Ingurumen bermeak betetzen
dira?**

Baietz esango nuke. Zaborra
jaso egiten da, eta ez da arazo
larririk sumatzen, lanuzteen
kasuan edo jai egunetan salbu;
gainera, gero, zabortegietara era-
maten dira. Baina zabortegi
horien aldamenean bizi direnek,
beharbada, ez dute gauza bera
pentsatuko.

**Erraustegiaren gaiaren aurre-
an Debagoieneko Mankomuni-
tateak zein jarrera azaldu du?**

Publikoki azaldu ez arren,
Gobernu Batzordean gaudenok
aurka agertu ginen lehen, eta aur-
ka gaude, zalantzak dauzkagula-
ko. Errauskailuarena proiektu
finalista da: etxe bat egiteko, lehe-
nengo, orubea egokitu, zimenduak
jarri, egitura egin eta, azke-
nean, teiltatua ipintzen da. Bada,
kasu honetan, errauskailua teiltatua
da, eta kudeaketa aztertzea,
berrerabiltzea bultzatzea, preben-
tzioa, zabor gutxiago sortzea,
gehiago birziklatzea... litzateke
beste guztia. Lan handia dago egi-
teko, baina teiltatua jarritz gero,
badirudi etxea amaituta dagoela.

**Partzuergoaren beste proiektuak
zein dira eta zertan eragi-
ten diete Debagoienari?**

Guztia definitu gabe dago, eta
aukera asko egon liteke, baina,
batetik, 2009an Akeiko instala-
zioak partzuergoaren eskutara
pasatzea sinatu zen. Bestalde, kon-
postatze gunerik ez da gurean
aurreikusten. Azpeitian, Lapatzen,
hasiak dira, eta aipatzen
zen hori esperientzia pilotua izan-
go denez, beste toki batzuetan, iba-
rrean, Aretxabaletan-edo, horre-
lako zerbitzu egitea.

**Debagoienean, hondakinen
kudeaketari dagokionez, zein
asmo dago etorkizunerako?**

Azterketa sakona egin behar
dugu, betiere, argi dauzkagun
printzipioetan oinarrituta: ahalik
eta zabor gutxien sortzeko neu-
rriak ipintzea, zergak, esaterako;
jendea kontzientziatzeko kam-
paina beharrezkoak dira; berrera-
biltzea bultzatu behar da eta,
horretarako ere, zergena izan dai-
teke bide bat. Bestalde, zabor pol-
tsako zatirik handiena den mate-
ria organikoa birziklatzeko, kon-
postatzea bultzatu behar da,
Azpeitian egingo duten gunearen
zain egon gabe. Izan ere, oraindik
aztertu gabe daukagun arren, uste
dugu eskualdean egin beharko
litzatekeela zerbitzu.

BIRZIKLATZEA

**"Birziklapenerako
kontzientzia izan,
badugu, baina arazoa ez
daukagu guztiz
barneratuta"**

bera, Debagoienean zaborraren
ia %30 birziklatzen dugu, baina
Europako herri aurreratuetan,
%60ra iristen dira.

**Konpostatze eta erraustearen
inguruan, zein jarrera dago?**

Konpostatzearen aldekoa eta
erraustearen aurkakoa. Ibarre-
ko mapa politikoari erreparatu-

ERRAUSTEGIA

**"Mankomunitateko
Gobernu Batzordean
gaudenok
erraustegiaren aurkako
jarrera daukagu"**

ta, garaile dira joera hori defen-
datzen dutenak, baita mankomu-
nitatean ere: EAE, Ezker Batua
eta Aralar. Erraustearen gaine-
an, gertuan tokatzen ez zaigunez,
beharbada ez dugu askorik pen-
tsatu inguru honetan; Donostia
inguruan, ardura handiagoa da.
Alde daudenek ere, etxe ondoan
balitz, ez lukete nahi.

KONPOSTATZEA

**"Azpeitia inguruan
hasiak dira esperientzia
pilotuarekin, eta hemen
ere, Aretxabaletan-edo
egin beharko litzateke"**

**Zabortegietan ahalik eta zabor
gutxien biltzea da planaren
beste helburuetariko bat. Iba-
rrean, behar baino zabor gehia-
go jasotzen da?**

Bai, zabor larregi sortzen
dugu. Batzuek diote, hala ere,
Europako herririk aurreratue-
nen mailara heltzeko, gehiago
sortu beharko genukeela.

oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Turismo Bulegoa laster zabalduko dute

Urriaren 31n zabalduko dute, hain justu, eta azaroaren 4ra arte egongo da zabalik. Ordu-egunetan, 10:30-14:00 eta 16:30-19:30, eta domeka eta jaiegunetan, 11:30-14:30. Bisitaldi gidatuak doan egingo dituzte.

BERGARA

> 1943an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute afaria, Azpeitxi jatetxean. Izena emateko, deitu 943 76 16 13 (Aran-tza Askasibar) eta 943 76 53 22 (Juan Antonio Fernandez) zenbakietara, azaroaren 22a aurretik.

ARAMAIO

> Erretiratuen bazkarirako txartelak, salgai

Urriaren 27an, erretiratuen eguna ospatuko dute, eta egingo duten bazkarirako txartelak salgai daude, udaletxean, Euskadiko Kutxan, Caja Vitalen eta auzo alkateei eskatuta, hilaren 24ra arte.

ELGETA

> 2-12 urte bitarteko umeendako izenematea zabalik, ludotekan

Udalak azaroaren 6an jarriko du martxan ludoteka zerbitzua. 2-12 urteko umei zuzenduta dago, eta interesatuek udaletxean eman behar dute izena azaroaren 5a baino lehen. Hilean 16 euro ordaindu beharko

dira umeko; bi anai-arreba izanez gero, 11 euro hilean, eta hiru izanez gero, 9 hilean.

BERGARA

> Meza andinoa, etzi, Santa Marina parrokian

19:00etan izango da. Limatik datorren Taki-lakkta musika taldeak abestu egingo du.

BERGARA

> Elosuko feriako zozketako zenbaki saritua

Zenbaki saritua da 3.143. Hamabost eguneko epean irabazlea agertu ezean, ordezkoko zenbakiak eroango du saria. Ordezkoa da 2.466.

BERGARA

> 1953an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 17an egingo dute afaria, Agorro-sin tabernan. Gero, dantzaldia egongo da. Izena emateko azken eguna da azaroaren 15a. Horretarako, jo Agorro-sin tabernara edo

ONCEko kioskora. Izenematea 15 euro da.

ARRASATE

> Nortasun agiria egiteko aukera egongo da BAZen

Urriaren 30ean eta azaroaren 6an eta 28an egingo dute, BAZen. Horretarako txanda hartu beharko da BAZen bertan, urriaren 26an hasita. Nortasun agiri hori ez da elektronikoa izango.

ARRASATE

> 1957an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Baster-Alden-joateko autobusa egongo da. Izena emateko, 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan: 3035 0047 16 0471068086 -izena eta bi abizenak zehaztu. Izena emateko azken eguna azaroaren 17a da.

BERGARA

> 1971n jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 10ean egingo dute, Agorro-sin

nen. Interesatuek izena eman behar dute azaroaren 3a baino lehen, Maxim's edo Deportivo tabernan -20 euro aurre-ratu behar dira.

BERGARA

> 1933an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 18an egingo dute, Zumelagan. 13:00etan meza egongo da. Izenematea Intxortan da, 6 euroren truke.

OÑATI

> Oñatiko emakumeendako informatika ikastaroa antolatu dute

Gizarte Zerbitzuek antolatu dute, eta ofimatika eta mekanografia landuko dira. Bi maila egongo dira: hasierakoa (120 ordu) eta birziklatze maila (36 ordu). Izenematea urriaren 29ra arte da, Ikas-Hiru akademian (943 78 31 03).

ARRASATE

> 1956an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 17an egingo dute, batzokian. Joan nahi duenak 50 euro sartu beharko ditu Euskadiko Kutxan (izen-abizenak zehaztea komeni da). Izenematea urriaren 27an bukatuko da.

ARRASATE

> 1967an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 10ean egingo dute afaria, Arteaga jatetxean. Izena emateko, deitu 943 79 65 56 zenbakira edo Portaloi Optikara joan (Mirari).

etxeko leihotik



Inazio Arregi > Goienako zuzendari nagusia

Ezekotik kudeaketaren kulturara

Ezkerreko alderdi bateko Gipuzkoako koordinatzaileari irratian egindako elkarrizketa entzuten nuen. Gaurkotasuneko gai askori buruz berba egin zuen: 2008ko erreferenduma, Batasuneko kideen atxiloketak... eta nola ez, zaborren kudeaketa eta errauskailuaz. Koordintzaile honek zioen, proposatzen den errauskailuaren ordeztasun merkeagoak, osasunarentzat kaltegarri ez direnak eta ekologikoak daudela. Azken urteetan hainbat buruhauste eman duen arazo bat konpontzeaz zegoela pentsatu nuen, izan ere, edonork egingo zukeen horrelako irtenbide baten alde. Nola ez txalotu proposamen merkeagoa, ekologikoagoa eta "osasungarriagoa"? Irtenbidea zein zen galdetuta, landu gabe zutela erantzun, eta euren proposamena aurkezteko beste batzuek izan duten denbora aldarrikatu zuen.

"Ezkerrak, zentzu zabalenean, ez zuen pentsatu kudeatzera irits zitekeenik"

Badirudi Euskal Herriko ezkerrek (zentzu zabalenean) ez zuela pentsatzen gai hau kudeatzera irits zitekeenik. Ezekoan eman dituen urteetan ez da arduratu irtenbide alternatiboak eraikitzeaz. Ezkerrek barneratu behar du gobernatzera irits daitekeela, eta honek kudeaketa klabeetan lan egitea eskatzen duela.

> Arrasateko Udalak kanpoko hainbat landare deuseztatzeko daukan asmoa dauka. Teknikariei gogorarazi nahi diet Arruena parkeko errotondan lau Cortaderia daudela kurioso-kurioso landatuta.

> Txartel bakarria abian da. Atera ere egin dut. Orain, hurrengo urratsa berau erabiltzera ohitzea izango da. Ai ene! Zenbat kostatzen zaigun ohitura zaharrak aldatzea!

debagoiendarrak kanpoan

Eider Markaide > Arrasate

"Kostaldea eta hondartza gogoko ditut, eta gustura bizi naiz Zumaian"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Eider Markaide arrasatearra Zumaian bizi da orain dela urtebete inguru, mutil-lagun Unai Kortazar eskoriatzarrarekin. Kostaldea gustuko zutelako joan ziren, eta gustura bizi dira hantxe.

Nolatan joan zineten Zumaia bizi izatera?

Iaz, azaro hasieran etorri ginen; aurki beteko dugu urtebete Zumaian. Kostaldea gustuko dugu, baina Deban ez genuen bizi nahi, Zarautzen ez genuen ezer aurkitu eta, etxe bila genbiltzala, Zumaian errentan aurkitu genuen etxea. Zumaia ez zen hasieratik geneukan asmoa, kasualitatez iritsi ginen. Lana izan zen beste arrazoi bat hona bizi izatera etortzeko. Mutrikun dihardut lanean, eta oso gertu

egon ez arren, Arrasate baino gertuago dago Zumaia, egunero joan-etorrian ibiltzeko. Unai komertzial lanetan ibiltzen da batetik bestera, hortaz, ez zitzaion asko axola, eta Zumaian gertzea erabaki genuen.

Urtebete ere ez da pasa Zumaia joan zinetela, baina ohitu zarete horko bizimodura?

Bai, erraz ohitu gara. Neguan, astegun arratsaldeetan, ez da ibiltzen, Arrasaten bezala, jende asko kalean, eta hasieran, beharbada, hori zen arraroena. Kontuan hartu behar da herria bera ere askoz txikiagoa dela, eta Arrasaten baino komertzio gutxiago dagoela. Baina hori, batik bat, neguan izaten da. Uda aldean, jende gehiago ibiltzen da kalean. Bestalde, euskaldunok, berez, oso zabalak



GOIENKARIA

Zumaiatik Mutrikura
Arrasateko Zumaia joan zen bizi izatera iaz; eta egunero joaten da lanera Mutrikuko Haurreskolara.

ez gabela kontuan hartuta, Zumaian bakarrik ez gara ibiltzen; gertuan, Getarian, ere badi-tugu lagunak. Gainera, orain dela gutxi, kiroldegian ere izena eman dugu eta, pixkanaka, ari gara Zumaiko bertako jendea ezagutzen eta bertakotzen.

Arrasatera sarritan etortzen zara bisitan?

Noizean behin. Lagunekin planen bat daukadanean, ondo etortzen zaidanean eta etxekoengana bisitan ere joaten naiz, baina astero ez. Lagunak ere, pixkanaka, bakoitzak bere bidea egin du, eta gero eta gutxiago ikusten ditut. Hala ere, lagunekin eta etxekoekin kontaktuan jarraitzen dut; eurekin geratzen ez banaiz, telefonoz, behintzat, hitz egiten dut.

Noizbait Arrasatera bueltatzeko asmorik baduzu?

Oraingoan, Zumaian geratuko naiz. Lanean aldaketarik ez bada, ondo gaude hemen. Hondartza oso gustuko dut, eta Unai, surfa. Hortaz, gustura bizi gara Zumaian.

Zein bizimodu egiten duzu?

Mutrikuko Haurreskolan dihardut lanean, eta denbora librean, hondartzara joaten naiz, eguraldi ona dagoenean; kiroldegira ere joaten hasi naiz.

Zumaia bisitan doazenei zer gomendatuko zenieke?

Itzurungo hondartza oso polita da, eta bisitatzea gomendatuko nieke. Bestalde, egubakoitz, zapatu eta domeka arratsaldeetan, herrian giro polita egoten da, nahiz eta gero, gauean, moteldu.

kale inkesta

1 Formulako Munduko Txapelketa atzo, domeka, bukatu zen; jarraitu duzu?



Mikel Mirena Agirrezabal
Langilea
Bergara

Zertxobait bai jarraitzen dut 1 Formula, baita Munduko Txapelketa ere. Alonsoren eta Hamiltonen artean gertatu dena gertatu da Mc Larenek laguntza eman diolako Hamiltoni, britainiarra delako.



Antonio Perez
Langilea
Bergara

Bai, jarraitzaile sutsua naiz eta atzo etxera joan nintzen karrera ikusteagatik. Alonso eta Hamiltonen artean dagoen ika-mika ikusita, dudarik gabe, Alonsok merezi zuela irabaztea uste dut.



Aitor Arzelus
Langilea
Bergara

Munduko Txapelketa ez ezik, 1 Formula, oro har, ez dut askorik jarraitzen, ez naiz oso motorzalea ere. Bain, a entzun dudana arabera, badakit Fernando Alonsori boikota edo sabotatzea egin diotela.



Nerea Lazpiur
Langilea
Bergara

Gutxi gorabehera, bai. Ni neu ez naiz oso zalea, baina etxean, bai, hortaz, zertxobait enteratuta nago, eta parean tokatzen zaidalako jarraitzen dut. Baina Alonso eta Hamiltonen arteko auziak, niri, bost.

zorroztailea



Juan Luis Azkarate

Hamar urte

“Zer ibili ginen bada kritiko tontolapikoak? Posmoderniaren kulturaren dena sedukzioa eta gezurra dela kezkatzen gara sasoi batean benetan zerbaitetan sinisten genuenok. Zer sinetsi apenas dakigun egun hauetan, amerikarrek ez diezagutela, behintzat, arima lapurtu.”

Joseba Zulaika
Berria > 2007-10-19



Nork dio beldur Marilyn Monroeri?, galdetzen du bere artikulu interesgarrian Joseba Zulaika antropologoak. Nola-koak diren gauzak: orain dela hamar urte Teologian doktorea den politiko ezberdin bat ikono amerikarrari beldur ez zion bakarrenetako zen gaur egun erabat galduta edo ahaztuta dago Zulaikak bere artikuluan aipatzen ez duen Joseba Arregi.

Izan ere, metafora ederra da Guggenheimarena azken urteotako gure historia txikia sinbolizatzeke. Nola aldatzen diren gauzak. Titaniozko museoa gaur egungo Gernikako Arbola dela dio Zulaikak, eta arrazoirik ez zaio falta, ene ustetan.

Urrutitik begiratu gero, ematen du museoa deriban mugitzen den itsasontzia dela; baina ez, geldirik dago. Hala ere, bere inguruan gauza asko mugiarazi ditu. Gernikako Arbola, aldiz, geldotasunaren paradigma dugu. Ez da sekula mugitzen, eta ez du ezer mugiarazten.

Titaniozko museoari esker, esaterako, kanpotik 8.500.000 bisitari etorri dira Bilbora azken 10 urteotan. Ez da plan kaskarra, gero: Warholen tomate potoak ikusten gosetu ondoren, Gernikako piperrak bapo jan.

Alperrik da, bestalde, galdetzea zer eman dian Titaniozko Museoa euskal kulturari, bere lehengaia kultura ez baita, turismoa baizik. Gauzak horrela, egun Bilbo turismoari zeharo emanda dagoen zerbitzuetako hiria dugu. Ziutate postindustrialaren paradigma mundu osoan, eta arkitektoen *star system*-aren diktadura ezarri zuenatariko bat. Gehryren Errioxako Elciego herrian Marques de Riscal bodegarako eginiko autoplagoa ikustea besterik ez dago.

XXI. mendean gaude eta sinbolo eta ikono berriez baliatzea beste erremediorik ez dugu, antza. Arbola zahar metafisikorendako lekuri ez geurean.

"Titaniozko museoa gaur egungo Gernikako Arbola dela dio Zulaikak"

"Guggenheimaren lehengaia ez da kultura, turismoa baizik"

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

OÑATI

> Plazako eszenatokiaren gaineko iritziak

Joan den astean tarte honetan argitaratutako kexa bati erantzunez, irakurle batek hauxe dio: "ASTELEHENKO GOIENKARIAN zera irakurri dut: Oñatiko ama batek plazan jaietarako jarri duten eszenatokia dela eta kezkatuta deitu duela, bere alaba bertatik erori baita eta ez omen da bakarra izan. Ni ere ama naiz, eta zera esango nioke: nire semeak ez direla eroriko, bertara ez dela igo behar badakite eta; hori ez da jolas tokia. Nora begira daude guraso horiek? Errazena erru guztia Udalarri botatzea da".

ARRASATE

> Arruena zelai inguruko biribilera ezin sartu

Gidari arrasatear batek hauxe esaten digu: "Arruenako biribila tapoia da Arrasateetik Bergarara goazenendako. Izan ere, gidari gehiago datoz noranzko hartatik saihesbidera, eta, horiek gure ezkerretatik datozenez, gu biribilera sartu ezinda geratzen gara. Badakit ingurune horretan guztian dagoela arazoa, baina jakinaz gura dut ez dela bakarrik Elorregiko biribildunean".

BERGARA

> Txakurren kakak kalean

Bergarar bat paseatzera irten zen atzo, eta ezuste txarra eraman zuen: Barrenkaleko espaloian zegoen txakur kaka bat zapaldu zuen: "Jabeek dute kakak jasotzeko ardura. Mesedez, izan dezagun bizikidetasun eta errespetu gutxieneko bat", diosku.

usteak uste

Jon Berezibar

Nesken errugbi partidua

Esperotako emaitza onarekin ekin zioten errugbiko neskek ligari egubakoitzean; hau da, ilusio handiarekin. Golik sartzerik ez zuten izan, baina susmoa daukat hutsean geraturiko markagailu horrek ez duela talde hasiberria aurrerantzean kikilduko. Animo, beraz, neskak, Arantzazu Ezkibel lankidearen kronikatik jakin dugun moduan, portatu egin zineten-eta. Entrenatzaileari irakurritakoaren arabera, konfiantza eta segurtasuna hartzen joan ziren, eta durangarrak erraz nagusitu bazitzaizkien ere, itzulerakoan, segur aski, gauzak ez dira hain samurrak izango (errugbiak inoiz *samurtasunik* izan badu). Hurrengoan, urduritasun txikiagoarekin baina ilusio berarekin irtengo zarete, ziur.

Goienkaria

Argiraratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirrezaldegi, Maier Uranga Oinarritzko diseinua Goto Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larralaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Oñalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publiz@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



ASTELEHENKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Mehatxu pintadak egin zituzten sozialisten egoitzan, eta beroiek garbitzen ibili dira > 10



> **BERGARA**
Hasiberriendako zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu du Aransgi zentroak > 11



> **ANTZUOLA**
Eskola kirolean dabiltzan umeak entrenatzeko gertu dauden gurasoak behar ditu Pausokak > 14



ARRASATE Epaimahaikoez ez zuten detailerik galdu.

JOSETXO ARANZABAL



ESKORIATZA Herriko plazara gerturatutakoak perretxikoei begira.

JOSETXO ARANZABAL

ARRASATE ETA ESKORIATZA > PERRETIXIKO EGUNA

Perretxikozale ugari, ume eta heldu, ibili da asteburuan

PINTXO LEHIAKETA

J.J. izan zen Arrasateko lehiaketan irabazle, 'Jarindo'-rekin

ADITUAK

Eskoriatzan, ume eta gurasoek adituen laguntza izan zuten

MAIER URANGA > ARRASATE

Atzo, domeka, Arizmendiko ikasleek 17. Perretxiko Lehiaketa jokatu zuten Arrasaten. Jende ugari bildu zen Herriko plazan aurrez gazteek bildutako perretxikoak ikustera.

Gelan landutako ikasgaia praktikara eramatea izan dute helburu. Hilabetez, GBH 1. eta 2.eko ikasleek Natur Zientzietan perretxikoen nondik norakoak ikasi dituzte, eta jatekoak sailkatzen edo pozointsuak bereizten. Bariku goizean, jasotako perretxikoak aurkeztu zituzten lehiaketara. Bazegoen zapatuan guraso edo aiton-amonekin joan zenik

ere. Azkenean, Ferixaleku guneko Ur-beltz taldeak eraman zuen lehenengo saria, San Viator Txiki guneko Satanasek, bigarrena, eta Amanitak, hirugarrena. Marrazki lehiaketa ere egin zuten, eta DBHn Maider Amozarrain eta LHn Irati Lopez izan ziren irabazleak.

AURTEN, PERRETIXIKO GUTXIAGO

Klase guztietako udazken loreak ikusi genituen atzo Perretxiko Lehiaketan. Tamaina eta kolore guztietakoak, kuleto faltsuak ugari, pinudi gibelurdinak edo azalore belakia perretxiko berezia, besteak beste.

Aurten, eguraldia dela eta, erdi lehorrak ei zeuden perretxikoak, eta batutakoak iazkoak baino gutxiago izan ei dira. Hala ere, boletusak eta hain eskasak diren amanita cesareak batzeko sortea izan zutela egiaztatu genuen.

Artisau saltokiak ere bazeuden, perretxiko zaletasunarekin lotutakoak. Legazpitik etorritako Joxek makilak zituen salgai, eta Matximentako Iñaki Agirreza-balagak, otarrak.

ESKORIATZAN ERE, PERRETIXIKOAK

Luis Ezeiza Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta, udazkeneko lore bila ibili ziren joan den

AZOKA

35

EURO KULETO KILOA

Basora joan barik, azokan ditugu perretxikoak; ez, ordea, mendiko prezio berean. Herriko azoketan, ondoaren prezioa 10-24 eurokoa da kilo bakoitzeko; ziza horia eta gibelurdinarena, berriz, 20 euro kiloko. Kuleto kiloa 35 euro da.

aste bukaeran Eskoriatzan ere. Herriko plazan jarri zituzten erakusgai zapatuan inguruko basoetan bildutako perretxikoak.

Zapatuan, menditik jaitzita-koan, Luis Ezeiza ikastetxera eraman zituzten perretxikoak, han, Durangotik etorritako perretxiko-adituek sailkatu zituzten. Gero, domekan, erakusketan jarri zituzten txukun-txukun. Eguraldia lagun, jende ugari gerturatu zen Herriko plazako erakusketara.

MERKATARITZA > IBAI-ARTEREN JARDUNALDIAK

Eibar eta Irungo esperientziak, merkataritzako jardunaldietan

Etzi, eguaztena, egingo dituzte 'Merkataritza Gune Irekiak' izeneko jardunaldiak, Ibai-arte merkatarien elkarteak antolatuta, Kulturaten

UBANE MADERA > ARRASATE

Etzi, eguaztena, arratsaldean egin dute hitzordua merkataritzaren jardunaldietarako: 19:00etan, Kulturaten. Merkatarien elkarteak azaldutakoaren arabera, "helburu nagusia Eibarko eta Irungo kasuak azaltzea da eta baita ere, merkatarari eta udaletako teknikari zein ordezkari politikoak sentsibilizatzea, norabide horretan lanean hasi ahal izateko". Hala azaldu dute antolatzaileek, Ibai-arte merkatarien elkarteak kideek.

Hain zuzen ere, Jesus Mari Elkorok, Ibai-arte kide eta Arrasateko dendariak azaldu du Irunen eta Eibarren aurretik dabilzala merkataritza jardue-

ra bultzatzeko orduan: "Irunen, muga desegin zenean, jarduera ekonomiko asko bertan behera geratu ziren eta, horren ondorioz, mugitzen hasi behar izan zuten hango jarduera komertziala zela hobetu aztertzeko. Eibar, berriz, Donostiatik eta Bilbotik ordu erdira dago, laster Gasteiztik ere ordu erdira izango da. Kontuan hartuta hiru hiriburuotan aldaketa nabarmenak izan direla azken urteotan hiriburuotako merkataritza indartzeko, Eibarren aspaldi ikusi zuten zerbait egin behar zutela bizirauteko. Bada, esperientzia horiek transmititu gura dizkiegu hemengo merkatarari eta herriko ardura-dunei".

AGINTARIEN BETEBEHARRA

Hain zuzen ere, eguazteneko jardunaldiekin, besteak beste, udal agintariak sentsibilizatu gura ditu Arrasateko merkatarien elkarteak.

Horren harira, Elkorok argi ikusten du agintariak badutela zeregina gai horri dagokionez: "Orain gutxira arte, eta orain bertan ere bai, hainbat arduradun politikok pentsatzen zuten herriaren bizitza edo bizitasuna



KALEAN Argazkian, emakume batzuk Olarte kaleko saltoki baten erakuslehoari begira.

UBANE MADERA

berez aurrera doan kontu bat zela: eta hori horrela izan da azken 500-600 urtetan. Askota, Udalek egin dutena da garapen hori antolatu. Baina, azken urteotan, gauzak asko aldatu dira.

Guztiok dugu automobila; automobilerik ibiltzeko bideak oso onak dira, eta hiriburu eta halakoetan muntatu dituzte azpiegitura komertzialak jendea erakartzeko. Bada, horren ondorioz,

sumatu dugu herriak bizitasuna galtzen dabilzala. Arazoa ez da bakarrik komertzioek aurrera egingo duten edo ez, baizik eta herriaren bizitasunak aurrera egingo duen edo ez. Adibidez, lehen Arrasaten bi zinema geneuzkan eta, gainera, bete egin ziren. Orain, berriz, justu-justu dugu bat, eta hori, Udalarena delako. Edo ikustea besterik ez dago zelakoak ziren orain 25 urteko domekak eta zelakoak diren oraingoak. Halakoetan ikusten da arazoa herriak duela, eta uste dut arduradun politikoak konturatu egin behar direla berez ez dela ezer konponduko, zerbait egin egin behar dela".

Jardunaldien egitaraua

19:00: Eibartik eta Irundik etorritako koei **harrera**.

19:15: **Ongietorria**. Ibai-arte Zuzendaritza Batzordeko kideak.

19:30: **Eibar Merkataritza Gune Irekia**: Mertxe Garate, Eibarko Udaleko Merkataritza Saileko zinegotzia eta merkataria, eta Leire Ojanguren, Merkataritzako teknikaria.

20:30: **Irun, Merkataritza Gune Irekia**: Tomas Maeztu, Irungo MUGAn merkatarari elkartearen gerentea, eta Maite Cruzado, Irungo Udaleko Merkataritza Saileko zinegotzia.

21:30: **Berriketaldia hizlariekin** (galderak).

Lekua: Kulturate.



U.M.

Mehatxu pintadak garbitu egin dituzte

Eguenean garbitu zituzten alderdi sozialistaren egoitzan egindako mehatxu pintadak. Haritz Arrieta PSE-EEko zinegotziak azaldu duenez, joan den egubakoitzean, urriaren 12an, egin zizkieten pintadak: bi diana handi, erdian PSE-EE siglak zituztela. Horrez gainera, pintura gorria ere jaurti zieten Olarte kale aldera ematen duen egoitzaren fatxadara. Arrietak eraso gaitzetsi egin du, eta salatu du osteraren egunetik aurrera Gaineratu du EAE-ANV beste aukera bat duela orain erasok gaitzesteko.

> ZERBITZUAK

Nortasun agiriak egin edo berritzeko txandak oraingo astean hartu behar dira

Udako etenaldiaren ostean, atzera ere badatoz Arrasatera nortasun agiriak egin edo berritzera. Lehen hitzordua bi aste barru izango da: hain zuzen ere, urriaren 30ean. Hurrengo azaroan etorriko dira, azaroaren 6an eta 28an.

Edozelan ere, hiru kasuetarako txandak egun berean eman egingo dituzte: oraingo asteko egubakoitzean. Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZ) egin behar da guztia. Edurne Muxikak, Biztanleen Arreta Zerbitzuko arduradunak, adierazitakoaren arabera, guztira, 300 lagunendako txandak izango dira. Horrenbestez, deia egin die herritarrei lasai joan daitezela txanda hartzera, txanda asko daude-eta.

> OBRAK

Ferreriako plaza eta Gazteluondoko bidearen proiektuak idazteko eskaintzak aurkez daitezke

Gipuzkoako Agiri Ofizialean, joan den egubakoitzean, urriaren 19an, argitaratu zituzten Ferrerias kalean plazaratu bat eta Gazteluondo eta Arrasate Pasealekua lotzeko errepide bat egiteko proiektuak idazteko lehiaketan deialdiak. Horrek esan gura du dagoeneko zabaldu dutela eskaintzak aurkezteko epea. Hain zuzen ere, bi kasuetan, deialdia argitaratu zenetik 26 egun ezarri dituzte eskaintzak edo parte hartzeko eskariak aurkezteko.

Biztanleen Arreta Zerbitzuan aurkeztu behar dira eskaintza horiek. Gero, zeini adjudikatuko dioten erabakiko dute udal arduradunek, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, bigarren eguaztenean.



ARANZGI Ibarreko gorrei zerbitzua ematen die Aranzgi zerntroak.

ARTXIBOA

HEZKUNTZA > GORRAK

Zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu dute

Gaiarekin interesatutako debagoiendar guztiek har dezakete parte; urtarrilean hasiko dira eskolak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Gorrek komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituzten pertsonen zuzenduta, zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu du Aranzgik, Bergarako Udaleko Gizarte Ongizate sailaren laguntzarekin. Ikastaroa urtarrilean hasiko da eta gaiarekin interesatutako debagoiendar guztiek har deza-

kete parte. Ikastaroak Bergarako Aranzgin izango da: hasierako mailan, eskolak martitzenero izango dira, 19:00etatik 21:00etara. Sakontze maila ere eskainiko dute. Ikasle kopurua mugatua da eta senitartekoei eta lagunek dute lehentasuna. Matrikulak 85 euro balio du. Argibideak, 943 76 27 03 telefonoan.

ERANTZUN BIKAINA

Dagoeneko 35 urte bete dira Aranzgi Bergaran kokatu zutenetik. Debabarrenari zein Debagoienari zerbitzua eskaintzen dio gaur. Azken hamar urteotan zeinuen hizkuntza ikastaroak antolatu dituzte. Iñaki Madinabeitia Aranzgiko zuzendariaren hitzetan, "erantzun bikaina jaso dugu eta aukera ona da ikasteko, eta premia zein jakin-mina dutenak guregana hurbiltzeko. Maila bat hartzeko ikastaro ona da".

ETXEBIZITZA > ZOZKETA

San Antonion 29 etxe behin-behinerako esleitu dituzte

Herenegun, zapatua, egin zuten zozketa; orain, emaitzaren gaineko alegazioak aurkez daitezke

dik, behin-behinekoa da, eta orain, alegazioak aurkezteko epea zabaldu da.

BERGARAKO 139 ESKATZAILE

Honakoak ziren kupoak: Bergaran erroldatutakoak, logela bateko etxebizitzetarako, bi logelakoetarako eta hiru logelakoetarako; Debagoienean erroldatuta, bi logelakoetarako eta hiru logelakoetarako -azken hori geratu zen hutsik; eta Gipuzkoan erroldatuta, bi logeladun etxebizitzetarako.

Oso zozketa borrokatua izan zen, etxebizitza baino eskaera askoz gehiago zegoelako: hala, Bergaran erroldatutakoak 139 ziren, eta 19 etxebizitza zeuden horien artean banatzeko; Debagoienean erroldatutakoak 144 ziren, eta 14 eskaera eta zortzi etxebizitza zeuden. Gipuzkoan erroldatutakoak bi eskaera eta bi etxebizitza zeuden.

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Herenegun, zapatua, goizean, Etorlur enpresa San Antonion eraikitzen dabilen 30 etxebizitza eta eranskinak zozketatu zituzten udaletxean. Zozketa publikoa zen, eta jende asko joan zen berau ikustera eta parte hartzera.

Azkenean, 29 etxebizitza banatu zituzten; bat eman gabe geratu zen, bost kupo zeudelako eta etxebizitza mota horri zegokion eskatzaile kupa hutsik geratu zelako. Hori bai, esleipendunen zerrenda, orain-



ZOZKETA Parte-hartzaile bat, bolatxoa ateratzeko gertu.

JOSETXO ARANZABAL



JOSETXO ARANZABAL

Erretiratuen lan txukunak, erakusketan

San Joxepe erretiratuen elkarteak kultura hamabostaldia egiten dabil, Adiskidetzeari leloarekin. Horko ekintza bat aste bukaeran egin dute: hain zuzen, erretiratuek egindako eskulan, margolan... erakusketan izan dute euren egoitzan eta, horrela, ahalegin eta kontu handiz egindako lanaren emaitza denok ikustek moduan izan da.

Gaur, astelehena, herri jolasak izango dira, 17:00etan hasita. Besteak beste, bolo-jokoa, toka eta igel txapelketak jokatuko dituzte.

Behin-beineko esleipendunak

Edith Lopez de Aretxaga Garmendia
Eider Iturrospe Larrañaga
Aitor Blanco Sanchez eta Nerea Irureta Untzurruntzaga
Asier Bardezi Etxarri eta Nerea Kerexeta Elortza
M. Teresa Jimenez Lopez eta Cesar Ruiz Fernandez
Aitor Francisco Alberdi Miguel eta Eneritz Zubiondo Atxabal
Ainhize Gomez de Segura Fernandez eta Ibai Goenaga Zangitu
Jokin Mendiarrach Zelaia eta Nerea Osinalde Moraleja
Eduarne Zabala Saez eta Iñigo Ziarsolo Larrañaga
Carlos Gomez Gonzalez de San Pedro eta Sonia Gimbert Acosta
Amaia Garitano Arregi eta Sergio Outeriño Lozano
Gorka Lobato Garcia eta Sara Barrutiabengoa Alberdi
Beatriz Marquez Ortiz
Itxaso Kareaga Barrena eta David Mateo Roderia
Ander Cabezas Salgado eta Iratxe Ugartetxe Ezpeleta
Domingo Ruiz Mota eta Encarnacion Murillo Moreno
Pedro Mancho Movellan eta Arantza Peña Fernandez
Manuel Fernandes Nogal eta Alzira Maria Teixugueira Lucas
Borislav Lubenov Hristov eta Pelagiya Zhivkova Hristova
Arkaitz Errasti Elortza eta Nora Diaz Blanco
Luis Javier Anguas Leon eta Ines Garcia Rivera
Mikel Aldekoa Anton eta Eider Untzueta Madariaga
Driss El Bergui eta Nawal El Hajli
Miren Josune Elejalde Etxebarria eta Ager Larrinaga Uribe
Raul Villar Perez eta Tamara Perez Murga
Yolanda Rodriguez Garcia eta Iñaki Llodio Uribeetxabarria
Mikel Hernandez Nova eta Oihana Legovia Lander
Roberto Silva Gonzalez eta Arrate Escribano Rico
Hanane Berghout eta Eñaut Mazorriaga Elduaien



IRABAZLEA Erdian, lehenengo saria jaso zuen Koldo Gojenolaren akuarela lana.

JOSETXO ARANZABAL

LEHIAKETA > MARGOAK

Koldo Gojenolak irabazi zuen pintura lehiaketa

Guztira, 28 lagunek parte hartu zuten Oñart elkarteak antolatutako pintura lehiaketan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Urriaren 14an egin zen Oñart Elkarteak deitutako ageriko pintura lehiaketa. Azkeneko urteotan, Oñatiko pintura lehiaketa gero eta ezagunagoa da. Hala, 28 artistak parte hartu zuten bosgarren lehiaketan, haietatik zortzi 16 urtetik beherakoen mailan.

KOLDO GOJENOLA

Plazako aparkalekuek begirata, udaletxea eta iturria margotu zituen Koldo Gojenola gasteiztarrek. Udaletxearen ikuspegi berezi hark eman zion lehenengo saria, 620 euro. Hala, Bizkaia aldera joan zen 390 euroko bigarren saria: Julio

Gomerak eskuratu zuen. Leioako margolariak sahiesbidea margotu zuen. Azkenik, hirugarren saria Jose Ramon Guerrak Jaturabe inguruan egindako lanak jaso zuen. Gazteen mailan, Sara Ramos, Joane Unanue eta Javier Ruano izan ziren sarituak.

Ageriko pintura lehiaketan parte hartu zuten 28 lanak erakuseta baten bildu dira. Urriaren 28ra arte egongo da zabalik, arratsalde, 18:30etik 19:30era.

IKASTAROA > EUSKARA

Euskarazko jokoak landuko dituzte

'Seme-alabekin euskaraz jolasean' delako ikastaroaren hirugarren edizioa antolatu du Udal Euskara Zerbitzuak azarorako

M.B. > OÑATI

Orain bi urte egin zuten *Seme-alabekin euskaraz jolasean* izeneko orain azkeneko ikastaroa. Hala, azaroan egingo dutena hirugarrena izango da. Ikastetxeetako ikasleen bitartez zabaldu du Euskara Zerbitzuak ikastaroaren inguruko informazio orria. Bertan zehazten dira ikastaroaren ezaugarriak eta izenematea egiteko pausoak. Izena emateko epea urriaren 26an bukatuko da.

HELBURUAK

Ikastaro horren helburu nagusia guraso eta seme-alaben artean euskaraz jolas egiteko bitar-

tekoak eskaintzea da. Euskara Zerbitzuak antolatutako ikastaroa gaztelekuan eskainiko da, azaroko lau zapatuetan, 3an, 10ean, 17an eta 24an, goizeko hamarretatik hamabietara. Irakaslea Ana Carpintero pedagogo izango da.

EZAUGARRIAK

Ikastaroaren lehenengo hiru saioetara gurasoak bakarrik joango dira, eta azkeneko saioan seme-alabek eta gurasoek elkarrekin jolastuko dute. *Seme-alabekin euskaraz jolasean* ikastaroa 2 eta 8 urte arteko seme-alabak dituzten aita-amei zuzenduta dago.

> EPAIKETA

Julio Perez Arriluzea, Alderdi Popularreko zinegotziaren epaiketa atzeratu egin dute

Uztaileko osoko bilkuran izandako istiluak ziren epaitzekoak etzi, eguaztena, Bergarako Epaitegian, baina atzeratu egin dute. Oporren aurreko azken bilkuran, EAE-ANVko kideek galde-erreguen atalean hitza hartu ondoren, PPko zinegotziek "hiltzaile" deitu ziela salatu zuten ezker abertzaleko kideek. Hala, EAE-ANVko kideek salaketa jarri zuten Bergarako Epaitegian. Julio Perez de Arriluzea PPko zinegotziak onartu egin zuen "hiltzaile" hitza erabili izana uztaileko osoko bilkuran. Epailak ezker abertzaleko kideek egindako salaketa onartu zuen; hortaz, PPko zinegotzia epaitu egingo dute, baina ez, aurreikusi moduan, etzi, eguaztena.

355 lagun elkartu ziren ikastolako ikasle ohien bazkarian

Giro onean ospatu zuten zapatuan Txantxiku Ikastolako ikasle ohien eguna. Ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko bazkarian, guztira, 355 ikasle bildu ziren. Esparragoak, arrain pudina, marisko krema, erredondoa saltsan eta tiramisua jan zuten kiroldegiko frontoian egindako bazkarian. Bazkalostean, bertsolarien eta trikitilarien emanaldiak egon ziren. Jaia borobiltzeko, musika entzuteko bi aparatuz zozketatu zituzten bazkarian parte hartu zuten lagun guztien artean.

Zapatuko jardunaldia Agosti- noen elizan esandako hildakoen aldeko mezarekin hasi zen. Ondoren, trikitilarien laguntzarekin, triki-poteoa egin zuten, bazkarirako ordua iritsi arte.



ARGAZKILARIA

ARETXABALETA > GERTAKARIAK

Osasun etxean jaio zen umea eta ama etxera etortzekoak ziren atzo

Euken Martin osasun etxeko emaginaren kontsultategian jaio zen, eguen goizean

Anbulatorioan jaiotzen den lehenengo umea da; ospitalean ere, oso kasu gutxi izaten dituzte

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA
Euken Martin txikia ez da edozein jaioberri: Aretxabaleako osasun etxean jaio den lehenengo umea da. Umea eta ama, Amaia Espeso, biak ondo daude, eta, Eskualdeko Ospitalean egon ondoren, etxera bueltatzekoak ziren atzo, domeka.

Eukenek ezuste handia eman zion amari. Izan ere, urriaren 26rako zegoen aurreikusita erditzea, baina, eguen goizean, amak, kontrakzioak zituela-eta, emaginaren gaitasuna joan zen, osasun etxera. "Emaginak esan zidan zazpi zentimetroko dilatazioa nuela eta ospitalera joateko eta ordu

betean-edo izango nuela umea, baina kontrakzioak oso gogorak nituen ordurako, eta ezin nintzen mugitu. Azkenean, hantxe, emaginaren kontsultan, izan nuen umea", azaldu digu Amaia Espesok, ama berriak.

ORDU LAURDENEN ERDITZEA

Ustekabeko erditzean, Blanca Barrio emaginak eta Aretxabaleako praktikante Clemente Domingok atenditu zuten ama. Espesok esaten duenez, "ez nengoen urduri; une horretan, ez nuen ezer gogoan". Dena oso azkar joan zen, 15-20 bat minutu, Espesok esaten duenez; eta oso

ondo ere, eta hantxe jaio zen Euken, 3,100 kiloko mutikoa. Anestesiarik gabe erditu zuen Amaia Espesok, herriko osasun etxea ez dago-eta erditzeetarako prestatuta, normala den moduan.

Segidan, osasun etxeko pediatrik umeari lehen errekonozimendu bat egin zion, eta dena ondo zegoela ikusita, berehala ospitalera eraman zituen ambulanzia batek ama eta jaioberria, eta han eman dute aste bukaera.

LANGILEENTZAT ERE, EZOHIOA

Aretxabaleako osasun etxean, lehenengo aldiz gertatu da horrelako zerbait; hango langileek ez dute antzeko ezer gogoratzen.

Eskualdeko Ospitaleko Amatasuneko ordezkariak esan dutenez, ospitaletik kanpo erditzen duten emakumeen kasuak "oso noizean behin" izaten dituzte. Bestalde, kasu horietan, umeekin eta amekin jarraitzen duten lan prozedimendua ohikoa da; ez dute ezer berezirik egiten.



ELKARRETARATZEA Institutuko langileek eta ikasleek egin zuten. GOIENKARIA

ARETXABALETA > ATXILOKETEN HARIRA

Institutukoek Labajoren atxiloketa salatu zuten

Espainiako Poliziak atxilotutako Lander Labajo Institutuko langilea da

L.K. > ARETXABALETA

Joan den astean Espainiako Poliziak Bizkaian atxilotutako Lander Labajo Aretxabaleako GLHB Institutuko irakaslea da. Atxiloketa horiek salatzeke, elkarretaratzea eta kartelada egin zuten egubakoitz goizean institutuko langile eta ikasleek.

Komunikatu bat zabaldu zuten. Atxilotuei eta senide eta lagunei "elkartasuna eta laguntza guztia" adierazi ondoren, "datozen egunetan Landerrek eta besteek jaso ditzaketen tratu desegokietan pentsatzeak biziki kezkatzen" zituela onartu zuten. Horregatik, "aske utz ditzaten exijitzen" bukatzen zuten egileek euren idatzia.

Aipatu behar da, www.ukberri.net webgunearen arabera, Labajoren anai-arrebek eta hiru lagunek istripua izan zutela Espainiako Auzitegi Nazionalerako bidean.

ESKORIATZA > GAZTEAK

Gertu dago gaztelekuko azaroko aisialdi eskaintza

Aste bukaera guztietan egongo da ekintzaren bat, eta izenemate epea zabalik dago

L.K. > ESKORIATZA

Eskoriatzako gaztelekuak gertu dauka azarorako egitaraua, eta udal arduradunek ohartarazten die parte hartu nahi duten gaztetxoei izena emateko aukera dutela gaztelekuan bertan.

Aste bukaera guztietan egongo da zer egin gaztelekuaren eskutik. Hauxe da, hain zuzen, eskaintza: hila asteko, perkusio

ikastaroa egingo dute azaroaren 3an, zapatua, 17:00etan; hurrengo aste bukaeran, zapatuan eta domekan, gaztelekua margotzeko aukera izango da.

HONDARRIBIRA, SKATE EGITERA

Bestelako eskaintza bat izango da hilaren 17an, herritik kanpo, hain zuzen: Hondarribira irteera egingo dute, eta hango skate parkean ibiltzeko parada izango dute, beste gauza batzuen artean. 11:00etan abiatuko dira herritik, eta 19:00etarako, Eskoriatzan bueltan izango dira.

Azkenik, hilaren 24rako, frontenis txapelketa antolatuko dute.



MARGOGINTZA Margo ikastaroak arrakasta handia du.

ARTXIBOA

ESKORIATZA > AISIALDIA

Oraindik parte har daiteke Amuskaren ikastaroetan

Ikastaroak dagoeneko hasi dira eta, jende askok izena eman arren, lekua gelditzen da

L.K. > ESKORIATZA

Oraindik lekua dago Amuska emakume elkarteak antolatu dituen ikastaro batzuetan, eta interesa dutenek kultura etxera joatea besterik ez dute, ikastarootara, astelehenerik eguenera, informazioa jasotzeko eta, ahal bada, izena emateko.

Arrakasta handia izan dute aurten ere Amuskaren ikastaroek, urtero bezala. Bost ikastaro daude: astelehenean, eho-

ziri-lanak eta bainika irakasten dute; martitzenean, goizean, olio-margogintza eta, arratsaldean, denetariko eskulanak; eguazten arratsaldean, eskulanak; eta eguenean, oihal eta larru gaineko margogintza eta zaharberritzea. Arrakastaren adierazle, honakoa: olio-margogintza irakasleak bigarren ikastaro bat antolatu du, lehenengo taldean kanpoan geratu ziren lagunekin.



TOPAGUNE Gaztetxoen topagune eta aisialdiko leku da gaztelekua.

ARTXIBOA

> DEIALDIA

Aretxabaleako udal eraikinak garbitzeko lanak, lehiaketara

Aretxabaleako Udalak berriz deialdia egingo du udal eraikinak garbitzeko lanak adjudikatzeke. Aurrekoan egindako lehiaketara enpresa bat aurkeztu zen, eta kontratatze-kotan zegoen Udala, baina enpresak bere eskaintza zuzendu egin zuen, esandako prezioan BEZa ez zegoelako sartuta. Horrenbestez, lehiaketa hutsik geratu zen azkenean.

Udalaren esanetan, iragarkia oraingo astean agertuko da, eta 26 eguneko epea izango da lehiaketara aurkezteke.

IRIARTE

Umeen denda
•
Helduen lantzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

ELGETA > ZERBITZUAK

Oskar Carrascal: "Internet puntua ez dut baliagarri ikusten"

Alderdi politikoen artean eztabaida piztu du Internet puntua ez jartzeko hartutako erabakiak

Oskar Carrascal kirol teknikariak astean egindako batzordean azaldu ditu ezetzaren zergatiak

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Foru Aldundiak erantzun bat behar zuen, eta bi lagunek presazko erabaki bat hartu zuten irailaren 27an: Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintako kiroletarako Internet Informazio Puntua Bolatoki tabernan ez jartzeko erabakia hartu zuten Oxel Erosarke alkateak eta Oskar Carrascal kirol teknikariak.

Erabaki horrek gainerako alderdi politikoen kritikak jaso ditu, gehienbat Elgetako Abertzaleak koalizioarenak. Aldundiaren eskaintzari ezetza eman izana "ulergaitza" egiten zaio Patxi Basauriren taldeari, eta erabaki okerra hartu izana leporatu die Elgetan Udal Gobernu osatzen duten bi taldeei. Eusko Abertzale Ekintza, hasieran, ekipoa jar-

tzearen alde agertu zen, baina alderdi horrek azaldu zuen ez zuela iraileko kiroletako batzorde-ara joaterik izan.

AZALPENAK

Asteko kiroletako batzordean eman ditu erabakiaren gaineko argibideak Oskar Carrascal kirol teknikariak: "Ez nuen Internet puntu hori Elgetan ikusten", esan zuen Carrascalek. "Kiroletara mugatutako kontsultak bakarrik egin daitezke ordenagailu horretan", argitu zuen. "Herriko kirol instalazioen erabiltzaileen profila ez dator bat horrelako zerbitzu batekin eta, gainera, kokapen arazoa ere ikusten nion. Bolatoki taberna zen geneukan aukera bakarra, eta umeen jolaserako besterik ez nuen ikusten ordena-



KOKAPENA Kirol teknikariak kokapen arazoak ikusten zituen.

IRATI AGIRREAZALDEGI

gailu hori". Carrascalek gaineratu zuen herri handiagotarako gehiago ikusten dituela horrelako zerbitzuak.

Rebeka Ubera kirol zinegotziak argitu du kontsulta puntu mugatua zela Aldundiak eskaintzen zuena, eta ez puntu zabal bat.

LEINTZ GATZAGA

Osoko bilkura, eguenean, hilak 25

Udalak ematen dituen zerbitzuen tasak eta udal zergak onartzeko da

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Datorren eguenean, urriak 25, ezohiko osoko bilkura egingo du Gatzagako Udalbatzak. 18:30ean izango da, eta gai nagusia, datorren urteko ordenantza fiskalak onartzea. Automobilen eta etxebizitzaren gaineko zergak eta zaborraren eta uraren tasak zenbat igo zehaztu beharko dute lehenengo, eta onartu, gero. Udalak herritarrei ematen dizkien beste zerbitzu batzuek ere izango dute igoera 2008ko urtariletik aurrera.

Ordenantza fiskalak onartzeko egingo duten udalbatzara aprobetxatuko dute beste gai batzuk eztabaidatu eta onartzeko. Hala ere, oraindik zehaztu barik dauka Eusebio Villar alkateak zenbat gai eta zeintzuk izango diren.

ANTZUOLA > UMEAK

Eskola Kiroleko umeendako entrenatzaileak falta dituzte

Neska-mutikoak entrenatzeko gurasoen falta dute, askok utzi egin dutelako

Entrenamenduetarako instalazioak ere behar dituzte, Pausokako kideen esanetan

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Pausoka Gurasoen Elkarteak ordezkariek Udaleko Kirol zinegotzi Andoni Azkargortarekin batzarra egin zuten aurreko astean. Kontua da eskola kirolerako entrenatzaile eta instalazio falta dutela Pausokakoek. Eskola kirolean parte hartzen duten neska-mutikoen hainbat gurasok jarduten dute entrenatzaile lanetan. Pausokak ikastaroak antolatzen ditu guraso horiendako; azkenaldian, baina, geroago eta gutxiago dira umeak entrenatzeko gertu dauden gurasoak.



UMEAK Iazko eskola kiroleko neska-mutikoen talde bat.

ARTXIBOA

Bestalde, instalazio falta ere badute. Eskolako jolastokian egiten dituzte entrenamendu gehienak, baina gune hori ez da egokia negurako. Gainera, espazio falta ere badute, gero eta ume gehiagok parte hartzen duelako eskola kirolean.

Azkargortak gurasoei adierazi zien Udala gertu dagoela elkarlanean jarduteko eta arazo horiei guztien artean konponbidea bilatzeko. Etzi, eguaztena, kirol batzordean parte hartuko dute Pausokako partaideek, gai hori jorrazteko.

ARAMAIO > ARGI-ETENAK

Argi-eten txikiak egongo dira urriaren 23tik 25era

Transformazio zentroetan mantenu lanak egin behar dituzte eta, astean zehar, argi-eten txikiak egongo dira Aramaion

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Oraingo astean, urteroko argindar transformazio zentroetako iraupen eta mantenu lanak egingo dituzte. Hau da, transformadoreen olio nibelak neurtuko dituzte, eta zentroak ekaitzetatik babesten dituzten elektrobabulak berrikusiko dira, besteak beste. Hori horrela, argi-mozketa txikiak egongo dira oraingo astean Aramaio-ko auzoetan eta baita kalean ere. Etenak oso motzak izango dira, bost minutu ingurukoak.

MARTITZENA

Mantenu lan horiek direla-eta, urriaren 23an egingo dute lehenengo argi-etena, eta honako

transformazio zentroetan egingo da mozketa: Gantzaga, Etxaguen, Labeaga, Untzilla eta Suña.

EGUAZTENA

Urriaren 24an egingo dute hurrengo etena, hau ere bost minutu ingurukoa. Kasu honetan, Arexola, Ibabe, Urizarri, Gureia eta Alzaga auzoei eragingo die argi-mozketak.

EGUENA

Urriaren 25ean bukatuko ditu Udalak transformazio zentroetako iraupen eta mantenu lanak. Azken argi-etenak, beraz, eguenean izango dira. Egun horretan, Azkoaga, Barajuen eta Arriolako transformazio zentroetan egingo dute lan.

IBARRA

Ibarran ere, urriaren 25ean egingo dute argi-etena, baina 45 minutukoa izango da. Izan ere, Ibarrari argindarra ematen dion transformazio zentroa beste guztiak baino dezenteko konplexuagoa da.

Kirola



> **FUTBOLA**
Aloñak galdu egin du Real Unionen aurka Azkoagainen > 16



> **ESKUBALOIA**
Arrasatek 20-30 galdu zuen Amenabarren aurka > 19



> **SASKIBALOIA**
Beste behin, Candyk galdu egin du Labegaraieta kiroldegian > 20



> **XAKEA**
Alain Prieto nagusitu da Arrasateko Xake Txapelketan > 22

ERRUGBIA > NESKAK

Urduri, baina ilusioz hasi du liga Arrasateko nesken taldeak

Egubakoitzean izan zuten Arrasatekoek ligako lehenengo lehia: 0-60 galdu zuten

San Juanetan hasi ziren nesken taldea sortzeko asmoarekin; 30 lagun dira taldean

ARANTZAZU EZKIBEL> ARRASATE
Aurreikusitako moduan, Arrasateko errugbi taldeko neskek galdu egin zuten ligako estreinako partidua. Durangoren aurka jokatu zuten arrasatearrek Mojategin; azken emaitza 0-60 izan zen bizkaitarren alde.

Partidua urduri hasi zuten etxekoek; hori dela-eta, hasierako minutuetan ez zuten gura moduko jokoa egin. Baina, poliki-poliki, taldeak konfiantza hartu zuen, eta horrek, jokoan, eragin zuzena izan zuen.

JOKALARIEK, JARRERA ONA
Hasieratik, markagailuan atzetik jarri arren, etxeko neskek ilusioz jokatu zuten Mojategin; jarraera bikaina erakutsi zuten partidu guztian. Hala, lana ondo eginez gero, emaitza ere halakoa izaten dela ikusi zuten egubakoitzean. Durangokoa talde sendoagoa eta beteranoagoa izan arren, etxekoek ez zuten amore eman.

"Lehenengo lehia dela kontuan hartuta, pozik gaude egin dugun jokoarekin. Jokalariek ondo erantzun dute, eta jarrera ona izan dute lehia guztian", adierazi zuen, partidu amaieran, Mikel Kerexeta entrenatzaileak. Arrasatek eta Durangok orain dela hiru aste jokatu zuten elkarren aurka lagunartekoa: "Partidu hartan, Durangoko taldea ez zen jokalaririk guztiekin etorri. Sei jokalaririk Euskadiko selekzioarekin batuta zeuden; hala ere, samur irabazi zuten lehia. Gaurko partidura jokalaririk guztiekin etorri direla kontuan hartuta, gu baino gehiago izan dira", azpima-

DATUA

2.000

URTEA

Orain dela zazpi urte, 2.000. urtean, Arrasateko nesken errugbi taldea atera zuen. Urte hartan, orain baino neska gutxiago animatu ziren errugbian jokatzera; eta, tamalez, urte bete bakarrik iraun zuen taldeak.

rratu gura izan zuen Kerexeta entrenatzaileak. Hala izan zen: egubakoitzeko lehian, asko nabaritu zen Durangoko jokalariren nagusitasuna.

EUSKAL LIGA
Arrasateko taldeak Euskal Ligan jokatzeko du: Gasteizko Euskotran Gaztedi, La Unica, Durango, Krafft Atletico San Sebastian, Mungia eta Getxo dira liga berean jokatzen duten beste taldeak.

Datorren astean, Atletico San Sebastianen aurka jokatuko dute arrasatearrek. Ligak martxoaren 3ra arte iraungo du, eta, zazpi talde direla kontuan hartuta, atsedena izango dute bi jardunalditan arrasatearrek. Lehenengo atsedena 6. jardunaldian izango dute, azaroaren 11n.

NESKEK BULTZATUTAKO TALDEA
Azken urteotan, Arrasateko Errugbi Elkarteak ez du nesken talderik izan. Hori dela-eta, herriko neskek, hutsune hori bete guran, taldea sortzeko ardura hartu zuten.

San Juanetan hasi ziren taldea sortzeko ideia lantzen; lagun koadrila elkartu zen, eta elkartari egin zioten proposamena. Hala, udako oporraldiaren ondoren, irailaren 7an, egin zuten lehenengo entrenamendua. "Gaur egun, 28 lagunek dute fitxa taldean, eta beste hiru neska fitxa gabe geratu dira; entrenamenduetara besterik ez dira etortzen", azaldu du Kerexetak. Nesken taldea aurrera ateratzeko entrenatzaile lanetan, Mikel Kerexetarekin batera, Igor Eraña ari da.



ERASOA Oihana Balantzategi Durangoko jokalarirengandik ihes egin guran.

JOSETXO ARANZABAL



Irudian, infantilak Mojategiko zelaietan.

JOSETXO ARANZABAL

Infantil mailako Gipuzkoako Txapelketa, Mojategin

Giro politoan jokatu zuten atzo infantil mailako mutilek Gipuzkoako Txapelketako lehenengo jardunaldia. Bi taldetan banatuta, 15 minutuko zati bana jokatu zuten Mojategin bildutako bederatzi taldeek. Arrasateko taldeak B multzoan jokatu zuen, eta ondokoak izan ziren atzo lortutako emaitzak: Arrasate-Hernani (15-10), Arrasate-Bera Bera (35-5) eta Ordizia-Arrasate (15-0). Gipuzkoako Txapelketa sei jardunalditan jokatuko da. Arrasate dagoen B multzoko talde onena Ordizia izan zen, bi partidu irabazi eta bat galduta.

PREFERENTE MAILA > ZAZPIGARREN JARDUNALDIA

Aloñak 90. minutuan galdu zuen poltsikoan zeukan berdinketa

ALOÑA MENDI

1-2

REAL UNION

Aloña Mendi > Iñigo, Julen, Jon, Iker, Axier (60. min. Aritz), Roberto (67. min. Iñigo), Iker (46. min. Xabi), Camino (81. min. Mikel), Iker (74. min. Josu), eta Iñigo.

Real Union > Amondarain, Carrion, Martínez, Sanchez, Fernandez, Zugarramurdi, Cristian (86. min. Alzuri), Torres, Ortega, Aranburu eta Salas.

Epaiea > Casanovas jauna.

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Aloña Mendik eta Real Unioneak jokatutako norgehiagoka berdinketarekin bukatuko zela ematen zuenean, 90. minutuan, Irungo taldeak bigarren gola egin zuen, eta puntuak eroan zituen. Hala, Real Union taldeak lau puntuko abantaila hartu du txapelketan. Halaber, Josu Zubiaren taldeak bederatzi punturekin jarraitzen du sailkapenean.

Atzo arratsaldean Azkogainen jokatutako partidua Preferente mailako zazpigarren jardunaldiko lehia izan zen.

ZATI BIZIA

Aloñak eta Real Unioneak jokatutako lehenengo zatia oso bizia eta intentsitate handikoa izan zen. Aloñak izan zuen lehen gol aukera, Axier Ugartek egindako jaurtiketari esker. Bada, Irungo jokalari



LEHIA Argazkian, Aloñako jokalari Iker Olalde, Real Union taldeko Jon Salasekin lehia, Jon Igartua begira dutela. J. ARANZABAL

lari Ortegak egin zuen lehen gola, bosgarren minutuan. Handik aurrera, parekotasuna izan zen, bi taldeek gol aukerak sortu zituzten-eta. Halaber, Aloñaren erremate batek langan jo zuen, eta korner erdiraketa batek zutoine-

an jo zuen. Edozelan ere, Irungo taldea iritsi zen abantailarekin atsedenera.

GOLA ETA TXARTEL GORRIA

Bigarren zatiko ordu erdia bete zenean egin zuen Xabi Caminok

berdinketaren gola. Bada, hurrengo jokaldian, Julen Barrenak bigarren txartel horia ikusita, etxeko taldea hamar jokalarirekin geratu zen. Puntu banaketa egongo zela zirudienean, Paniaguak bigarrena egin zuen.



EGOTZI Ekain Garin, baloiarekin; gero, egotzi egin zuen epaileak. JOSETXO ARANZABAL

PREFERENTE MAILA > MONDRA-TOURING

Gaizki jokatu arren, irabazi egin zuten arrasatearrek

MONDRA

4-3

TOURING

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Lehenengo zatiko jokoa ikusita ezinezkoa zirudien arren, Mondrak 0-2ko emaitzari aurre egin eta partidua irabaztea lortu zuen. Touringen lehenengo gola baloi luze baten ondoren iritsi zen; gero, 20. minutuan, korner baten ondoren egin zuen bigarrena Touringek. Markagailua eta jokoa

ikusita, partidua erabakita zegoela zirudien. Baina, atsedena baino lehenago, etxekoen berdinketa etorri zen, Muruak, lehenengo, eta Touringek bere atean sartutako golei esker.

MONDRA, BAT GUTXIAGOREKIN

Aldagelatik bueltan, 55. minutuan, alderatze baten ondoren, Touringek 2-3koa egin zuen. Hiru-nako berdinketa Iker Laspiurrek egin zuen, penaltiz. Azkeneko minutuak nahasiak izan ziren; lehenengo, epaileak Ekain Garin egotzi zuen. Mondrako jokalari bat gutxiagorekin zegoela, etxekoen zorionerako, Iker Lopezek laugarren gola egin zuen.

emaitzak eta
sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Ordizia	17	7
2. UDA	13	7
3. Real Union	13	7
4. Hernani	12	7
5. Mondra	12	7
6. Berio	12	7
7. Zumaiaiko	11	7
8. Euskalduna	11	7
9. Trintxerpe	11	7
10. Zestoa	10	7
11. Aloña Mendi	9	7
12. Aurrera	9	7
13. Eibartarrak	8	7
14. Vasconia	7	7
15. Hondarribia	5	7
16. Anaitasuna	5	7
17. Idiazabal	4	7
18. Touring	4	7

Emaitzak	
Zumaiaiko-Vasconia	2-2
Aloña Mendi-Real Union	1-2
Zestoa-Hondarribia	3-2
Idiazabal-Berio	0-1
Anaitasuna-Ordizia	0-0
Eibartarrak-Euskalduna	1-0
Hernani-UDA	1-1
Trintxerpe-Aurrera	2-2
Mondra-Touring	4-3

Hurrengoak	
Vasconia-Aloña Mendi	
Real Union-Zestoa	
Hondarribia-Idiazabal	
Berio-Anaitasuna	
Ordizia-Eibartarrak	
Euskalduna-Hernani	
UDA-Trintxerpe	
Aurrera-Mondra	
Touring-Zumaiaiko	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA	
Bergara-Lazkao	5-0
Antzuola-Urola	2-2

BIGARREN ERREGIONALA	
Mondra-Anaitasuna	3-0
Ikasberri-BTLS	1-3
UDA-Eibartarrak	3-0

EMAKUMEZKOAK	
Ordizia-Arizmendi	2-1
Lazkao-Bergara	1-3
Mutriku-Mondra	2-1
Anaitasuna-BTLS	0-3
Arizmendi-Urola	5-1

OHOREZKO GAZTEAK	
Beasain-Mondra	6-1
Elgoibar-Bergara	0-1
UDA-Zumaiaiko	1-4
Orioko-Aloña Mendi	1-2

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK	
Ilintxa-Bergara	7-4
UDA B Arizmendi-Eibartarrak	1-1

OHOREZKO KADETEAK	
Aloña Mendi-Real Sociedad	0-4
Bergara-Elgoibar	0-0

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK	
UDA B	atsedena
Bergara B-Ilintxa	3-0
Arizmendi-Eibartarrak	0-4
Arrasate-Soraluze	10-0

KADETE NESKAK, F11	
Aloña Mendi-Arizmendi	2-4



LORTU DUGUNAREN SEINALE



Asko da egiteko duguna
baina 10 urte
hauetako emaitzak
begi bistakoak dira

ESKERRIK ASKO
LANA EUSKALDUNTZEKO
DINAMIKAN MURGILDUTA
ZAUDETEN GUZTIOI



OSPAKIZUN EKITALDIA
ELKARREKIN BIDEA EGITEN...

NOIZ: 2007ko URRIAK 24

LEKUA: Amaia Antzokia. ARRASATE

ORDUA: 17:30

EE **EMUN**
NC LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

Informazio gehiago: www.emun.com/10urte
www.lantalan.com



Karaoke Ikuskizuna

Eskoriatzako HUHEZIn

Aretxabaleta eta Eskoriatzako umeak

Urriaren 27 eta 28an

Urriaren 27an:

- 1.saioa: 17:00etan
- 2.saioa: 18:15ean
- 3.saioa: 19:30ean

Urriaren 28an:

- 1.saioa: 17:00etan
- 2.saioa: 18:15ean
- 3.saioa: 19:30ean

Zatoz zure herriko kantariak animatzera!

BABESLEA



gaztetxo
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LAGUNTZAILEAK





GOLEGILEA Ford Mugarri taldeko Josu Herrero 11 gol egin zituen zapatuko partiduan.

JOSETXO ARANZABAL

LEHENENGO TERRITORIALA > HIRUGARREN JARDUNALDIA

Partidua berdintzeko jaurtiketa, zutoinera

ARRASATE

24-25

AMENABAR

Arrasate > Mikel Sarrao (3), Josu (11), Iñaki (2), Aitor (3), Mikel Penas (1), Aritz (2), Jon, Aitor eta Mikel Letona (2).

Amenabar > Altzibar (2), Irasuégi (5), Iruretagoiena (3), Valenzuela (3), Santos (5), Epelde (4), Enparantza (2), Beristain, Gesalaga, Perez (1) eta Alberdi.

Golak best minuturo > 1-3, 2-3, 3-5, 6-7, 8-10, 11-12. Atsedena. 12-14, 15-18, 15-22, 18-22, 21-25, 24-25.

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Partidu guztian markagailuan atzetik ibili arren, Arrasatek berdinketa lortzeko azken jaurtiketa izan zuen, atzo, Iturripen, Amenabar taldearen aurka jokaturako norgehiagokan; baina Josu Herrero egindako azken jaurtiketak zutoinean jo zuen. Hala, gol bakar bategatik, puntuak Zarautzera joan ziren.

Hiru partidua jokatu ditu Arrasateko lehenengo territorialeko taldeak; horietatik bi galdu egin ditu, eta bakarra irabazi.

ERASOAN ARAZOAK

Bi taldeek arazoak izan zituzten erasoan golak egiteko. Hala, lehe-

nengo zatiko 21. minutuan, 7-7 erakusten zuen markagailuak. Zarautzko taldeak hiru goleko errenta zabaldu zuen, atsedenerako bi minutu falta zirenean; bada, etxekoek abantaila gol bakar baten utzi zuten (11-12).

Bigarren zatian, Amenabar taldeak askoz hobeto jokatu zuen. Hala, 0-3ko partzialari esker, 15. minutuan, zazpi goleko tarte zabaldu zuten (15-22). Poliki-poliki, Arrasateko jokalariek errenta murrizten joan ziren. Gol bateko abantailarekin, Amenabar taldeak erasoan huts egin zuen. Hala, azken jaurtiketa egiteko aukera izan zuten etxekoek, baina baloiak zutoinean jo zuen.

EUSKADIKO TXAPELKETA > SEIGARREN JARDUNALDIA

Ford Mugarri eta Bergarak lehiak galdu egin dituzte

Arrasatearrek Urdulizen aurka galdu zuten, 30-20, eta Josetxo Muniategiren taldeak, 27-26, Urdanetaren aurka

M.B. > BERGARA

Euskadiko Txapelketako seigarren jardunaldia oso txarra izan da ibarreko bi ordezkariendako, Ford Mugarri eta Bergarak norgehiagokak galdu egin dituzte-eta.

BERGARA

Josetxo Muniategiren taldeak atzo goizean jokatu zuen Urdanetaren aurkako partidua. Gol bakar bategatik galdu zuten mahoneroek, eta entrenatzailea oso haserre zegoen amaieran: "Ligako lehen partidua irabazteko aukera paregabea galdu

dugu", azaldu zigun Muniategik. Lehenengo zatian, gol bateko errenta izan zuten bergararrek, eta "erasoan huts asko" egin zituztela esan zigun entrenatzaileak.

Bigarren zatian, lehenengoan egindako lan guztia alperrik galdu zuten bergararrek. Halaber, lehia berdintzeko azken aukera izan zuten.

FORD MUGARRI

Beñardo Balerdiren eta Fertxu Rodriguezen taldeak ez zuen punturik lortu Urdulizen aurkako lehian. Partidua hasi orduko, etxekoek, lau kontraerasoetan lau goleko errenta zabaldu zuten. Hala, arrasatearrek ia beti atzetik ibili ziren markagailuan.

Bigarren zatian, etxekoek zortzi goleko errenta zabaldu zuten; bada, arrasatearrek errenta lau golera jaitsi zuten. Halaber, Arrasateko bi jokalarik txartel gorria ikusi zuten.

> EMAKUMEZKOEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Azkeneko 10 minutuetan galdu zuten Aloñako neskek Bilboko San Adrianen aurka (30-23)

Norgehiagoka guztian gol bateko aldearekin gora edo behera ibili eta gero, Aloñako neskek galdu egin zuten ligako bigarren jardunaldia, Bilbon. Partidua uste baino ordu erdi beranduago hasi zen, eta horrek eragina izan zuen partidua nondik norakoan. Behin jokoa hasita, oñatiarrak ez ziren ondo ibili; emaitzari ondo eutsi zioten lehenengo zatian, baina, bigarrenengoan, behera egin zuten fisikoki. Bilboko taldea kontraeraso azkarrak egiten hasi zen, eta oñatiarren defentsak ezin izan zuten ezer egin kontraerasoak gelditzeko. Datorren astean ere, etxetik kanpo jokaturako dute oñatiarrek, Urdaibairen aurka, hain zuten.

Aloña Mendikoak baino gehiago izan ziren Ereintzako neskek (8-13)

Galdu egin zuen Aloña Mendiko kadete mailako nesken taldeak atzo, Ereintzaren aurka, ligako hirugarren jardunaldian. Zubikoa kiroldegiko kantxa berrian jokatu zuten Eneko Gonzalezek eta Erik Fuentek zuzentzen duten taldeak; eta, emaitzaren arabera, ez zuten zorte handirik izan. Hirugarren jardunaldia izan arren, oñatiarrek bi partidua bakarrik jokatu dute, eta bakarra irabazi. Hori dela-eta, oñatiarrak 10. tokian daude sailkapen nagusian.

Bestalde, Aloña Mendiko gazte mailako neskek 24-15 irabazi zuten Ereintzaren aurka.



JOSETXO ARANZABAL

> BIGARREN TERRITORIALA

Gol baten aldearekin irabazi zuten Usurbilek Aloña Mendiren aurka

Gol bat falta izan zitzaion Aloña Mendiko 2. Territorialeko taldeari partidua irabazteko (21-22). Joko aldetik, nahiko lehia eskasa izan zen; Aloña Mendik oraindik ez du taldea guztiz osatu, eta, gainera, hainbat jokalarik min hartuta ditu.

Atzoko lehian, etxeko taldea markagailuan atzetik izan zen denbora guztian. Lehenengo zatian, sei goleko errenta izan zuten Usurbilekoek, baina atsedenera, hiruko aldearekin besterik ez ziren iritsi. Bigarren zatian, etxekoek hobetu egin zuten eta, garaipena gertu izan arren, gola falta izan zitzaion.

emaitzak

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO TXAPELKETA, MUTILAK
Urduliz-Ford Mugarri 30-20
Urdaneta-Bergara 27-26

EUSKADIKO TXAPELKETA, NESKAK
San Adrian-Verkol Aloña 30-23

LEHENENGO TERRITORIALA
Arrasate Eskubaloia-Amenabar 24-25

BIGARREN TERRITORIALA
Aloña Mendi-Usurbil 21-22
Donibane-Bergara 25-29

GAZTEAK, GIZONEZKOAK
Hondarribia-Aloña Mendi 33-16

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK
Verkol Aloña-Ereintza 24-15
Citoren C. Arrasate-Groseto 11-27

KADETEAK, GIZONEZKOAK
Leizaran-Berezo 29-31
Euskalduna-Bergara 26-24

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK
Verkol Aloña Mendi-Ereintza 8-13

SASKIBALOIA > GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA

Azkeneko laurdenean galdu zuen lehia Bergarak

Partidua berdindua izan zen arren, azkenean galdu egin zuen Bergarak; orain arteko guztiak galdu dituzte

CANDY BKE

69-81

EASO ATLETICO

Candy BKE > Bernardo (5), Blazquez (7), Arazkonaga (12), Morais (8), Arteaga (4), Muri-
llo (8), Beiztegi, Aizpurua, Olaetxea (2),
Iñarra (5), Herzog (11), Eraña (5).

Easo Atco. > Bernaldez, Egaña, Martinez,
Esnaola, Aizpuru, Lopez, Fontecha, Beltran,
Aranburu, Caverro, Molke eta Mendizabal.

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laur-
dena: 17-17. Bigarren laurdena: 35-33.
Hirugarren laurdena: 50-52. Laugarren
laurdena: 69-81.

ez dute partidurik irabazi. Hor-
taz, puntuak irabazten hasteko
modu polita izango litzateke etxe-
koen aurrean irabaztea.

DEFENTSAN, GAIZKI

Bergarren jokoa nahiko urria
izan zen; batez ere, defentsan ibi-
li ziren gaizki etxeakoak. "81 pun-
tu jasotzea ez da emaitza ona, pun-
tu gehiegi dira; horrek esan gura
du gaizki ibili garela defentsa
lanetan", adierazi zuen amaieran
Jesus Morais jokalaria.

Etxekoen lehenengo tantoa
lehenengo minutuan iritsi zen;
ordurako, donostiarrek bi tanto
egin zituzten. Hala, etxeko taldea
beti atzetik egon zen, baina nahi-
ko berdintsua izan zen lehenen-
go zatia. Laurdenetako emaitzei
begiratu gero, lehenengo laur-
deneko partziala 17-17 izan zen,
eta bigarren laurdeneko partzia-
la, 18-16. Hortaz, aldageletara
etxeko taldea bi puntu aurretik
joan zen (35-33); baina lehenen-
go zatiko lanak ez zuen jarraipe-
na izan ondoren.



JAURTIKETA Bergararrak, saskiratzea egiteko gertu.

JOSETXO ARANZABAL

AZKEN LAURDENEAN, BEHERA

Bigarren zatian, aldaketa egon
zen, batez ere, emaitzari begira-
tuz: azkeneko laurdenean egin-
dako defentsa txarraren ond-
orioz, tarte handia zabaldu zuten
donostiarrek Labegaraietako
markagailuan.

Taldeari dagokionez, iazko
talde berbera du Bergarak, bai-
na, aurten, maila da berria, eta

neurria ezin hartuta dabilta
mahoneroak. Datorren astean
izango dute aukera lehenengo
partidua irabazteko; Bergarak
Zarautzen jokatu du.

Zarautz bigarren da sailkape-
nean; jokatu bost partidue-
tatik lau irabazi ditu, eta baka-
rra galdu. Hortaz, aurkari goga-
rra izango du Bergarak datorren
asteko jardunaldian.

> 1. MAILA

Azken minutuetan, esperientzia erakutsi zuen MU taldeak

Emaitza ona lortu zuen zapa-
tuan MUK Durangon, Tabira-
koren aurka (89-76). Lehia
gogorra izan zen; horren adi-
bidea da arrasatearrek parti-
duko tarte zabalena emaitzan
izan zutela. Gainontzeko
minutuetan, etxeko taldea
izan zen markagailuan aurre-
tik; bigarren laurdenaren
amaieran, zortzi puntu behe-
tik zen Arrasate, eta hiruga-
rrenaren amaieran, sei pun-
tu behetik.

Hala, azkeneko laurdene-
an egindako lan onari esker
eta jokalariek erakutsitako
esperientziari esker, MUK ira-
bazi egin zuen Durangon.

emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Tabirako Baque-MU	89-76
-------------------	-------

GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA

Candy BKE-Easo Atc	69-81
--------------------	-------

GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA

Oiarso-MU	21-78
Aloña Mendi	atsedena

SENIOR NESKAK

Eskoriatza	atsedena
------------	----------

JUNIOR GIZONEZKOAK

Mondragon Unbertsitate-Krafft	58-42
Goierri Verkol-Aloña Mendi	66-87
Bergara-Zarautz	47-23

JUNIOR EMAKUMEZKOAK

Internacional-Eskoriatza	20-70
Bergara-Allerru	87-18

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Begarako saskibaloi taldeak ez
dio neurria hartu maila berri-
ri; zapatuan, Donostiako Easoren
aurka 69-81 galdu zuten mahone-
roek. Norgehiagokak garrantzi
handia zuen etxeko taldearentzat;
izan ere, aurtengo denboraldian

ARETO-FUTBOLA > TXAPELKETA

Lehenengo jardunaldia jokatu dute

Labegaraietako txapelketako lehen fasea ligaxka
modura jokatu dute 12 taldeek

Datorren domekan jokatu dute txapelketak
dituen hamaika jardunaldietatik bigarrena

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Labegaraietako areto-futbol txape-
lketako lehenengo jardun-
aldia jokatu zuten atzo Bergarako
kiroldegian. Hala, txapelketan
parte hartzeko izena eman zuten
12 taldeek arazo barik hasi zuten
lehen fasea.

EMAITZAK

Atzo goizeko bederatzia eta erdie-
tan jokatu zen lehenengo parti-
dua Labegaraietako kantxan.
Goizean, lau norgehiagoka joka-
tu ziren, eta bazkaldu ondoren,
arratsaldean, beste bi lehia.

Honako hauek izan ziren atzo-
ko emaitzak: Errota Gain-Alex
Taldea, 12-2; Irish Pub-Los Blus,
3-5; Irubidee-Hamaika Jintxi,
5-4; Belengua-El Malpet, 6-5; Los
Carboneros-Komando Piperrak,
2-5; eta Niu Tim-Tiki-Taka, 0-11.

BIGARRENA

Lehenengo fasea ligaxka modura
jokatu da; hala, talde guztiek
elkarren aurka jokatu dute.
Bigarren jardunaldia domekan
jokatu dute, Labegaraietan
bertan. Emaitzak eta sailkapenak
kiroldegian daude.



HASIERA Argazkian atzo jokatuako partiduko une bat.

JOSETXO ARANZABAL

BERGARA

Kirol asko ezagutu eta egiteko aukera dago eskola kirolarekin

2. JARDUNALDIA Bergarako neska-mutikoen eskola kiroleko bigarren jardunaldia jokatu zuten zapatuan Labegaraieta kiroldegian

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Ikasturtearekin batera hasten dira etxeko gaztetxoak eskola kiroleko jarduerekin. Hala, ibarreko herriek aste bukaeran hasi dute gaztetxoaren liga; Bergaran, esaterako, zapatuan, ligako 2. jardunaldia jokatu zuten. Elgetako, Antzuolako eta Bergarako neska-mutikoen elkartu ziren Labegaraietako kiroldegian eskubaloian jokatzeko.

Goizeko hamarretan egin zuten hitzordua alebin mailako mutilek; goizeko hotzari aurre egi-

nez, eta gurasoen laguntzarekin, denboraz iritsi ziren denak Labegaraietara.

Hiru taldetan banatuta daude alebin mailako neska-mutikoenak: sortaldeko liga, hegoaldeko liga eta ekialdeko liga. Sortaldekoa eta hegoaldekoa mutilen ligak dira, eta ekialdekoa, berriz, neskena da.

ESKUBALOI PARTIDUAK

Antzuola A eta B eta Mariaren Lagundia A eta B izan ziren aurrez aurre Labegaraietan.


ESKUBALOI Aste bukaeran, eskubaloian jokatzeko aukerak zaituzte; modu horretan, joko horretako arauak eta teknikak ikasteko aukera izan dute

Eskubaloi partiduak jokatu zituzten, honela: Antzuola B Mariaren Lagundia A-ren aurka, eta Antzuola A Mariaren Lagundia B-ren aurka.

Umeak pozik zeuden eskola kiroleko jarduerekin. Eskolan edo kalean, eskubaloian jokatzeko ohiturarik ez dutela esan ziguten, baina eskubaloia oso gustuko duten kirola dela gaineratu zuten. Entrenatzaile, guraso eta Bergarako eskubaloi elkartearen laguntzarekin, eskubaloi-ko hainbat sekretu ikasi zituzten.

LIGAK Hiru ligatan banatuta daude Alebin mailako neska-mutikoenak: sortaldeko liga, hegoaldeko liga eta ekialdeko liga dira taldeak

GUSTUKO DUZUE ESKUBALOI?



Jon, Iñaki eta Ibai
Mariaren Lagundia

"Eskubaloian jokatzeko gustuko dugu; gainera, horrelako egunetan, eskubaloian ondo jokatzeko arauak ikasten ditugu", azaldu zuten Bergarako hiru gaztetxoek. Ikastetxean eta kalean, futboleko jokatzeko ohitura dutela onartu zuten: "Futbola da gehien gustatzen zaiguna, eta, baita ere saskibaloia. Eskubaloian, eskolako orduetan aritzen gara, soinketan".



Mikel eta Iker
Antzuola


Kirol guztiak dituzte gustuko Mikelek eta Ikerrek. Hala ere, ohitura handiena futboleko jokatzeko dutela onartu digute: "Eskolako atsedean orduan, futboleko ibiltzen gara. Hala ere, eskubaloia oso gustuko dugun kirola da, eta asko poztzen gara eskola kiroleko jarduerekin. Kirol guztien artean jokatzeko samurrena saskibaloia dela esango genuke".



Antzuola A eta B. Ander, Iker, Urtzi, Jon, Mikel, Jon Unai, Iker, Dean, Iker, Josu, Endika, Haritz, Ander, Josu eta Adrian dira Antzuola taldeko lagunak. Elgetako lau jokalariek daude taldean.



Mariaren Lagundia A. Diango, Jon, Jokin, Andoni, Unai, Ibai eta Christianek osatzen dute taldea.



Borja, Aitor eta Mikel
Mariaren Lagundia

"Saskibaloia, futbola, eskubaloia... kirol guztiak ditugu gustuko. Baita patinean ibiltzea ere! Eskola orduetan eta kalean, futboleko jokatzeko ohitura handiagoa dugu. Hala ere, eskubaloia oso gustuko dugun kirola da; baina, askotan, ez dugu baloi egokirik izaten eskubaloian jokatzeko. Hori dela-eta, ez dugu gura beste jokatzeko eskubaloian", adierazi zuten hiruek.



Dean eta Adrian
Antzuola

Dean Antzuolakoa da, eta Adrian, Elgetakoa. Kirol guztiak dituzte gustuko bi gaztetxoek: "Denetik egiten dugu, eta kirol guztiak ditugu gustuko. Kalean gaudenean, ohikoena futboleko jokatzeko da, baina eskola kiroleko orduetan, eskubaloia eta beste hainbat kirol egiteko aukera izaten dugu. Kirol guztiak dira jokatzeko samurrak, ez dago bata bestea baino zailagorik".



Mariaren Lagundia B. Mikel, Iñaki, Daniel, Julio, Aitor, Borja, Asier eta Iban dira taldekideak.

XAKEA > TXAPELKETA

Azken partidua irabazita, Alain Prietok eroan zuen txapela

Abadiñoako jokalaria sailkapeneko lehen tokian zegoen Aitor Alcaide menderatu zuen Arrasate Hiria Xake Txapelketako azken jardunaldian

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Egubakoitzean, gaueko hamaiakak eta erdietan, Josu Tornay eta Fran Miguelen arteko lehia berdinketarekin amaitu ondoren jakin zuen Alain Prietok Arrasate Hiria Xake Txapelketa irabazi zuela. Aurretik, Abadiñoako jokalaria sailkapenean lehen tokian zegoen eta txapelketa irabazteko puntu erdiko abantaila zuen Aitor Alcaide menderatu zuen. Hortaz, Aretxabaleko jokalaria bi postu galdu zituen azken sailkapenean.

Hala, Alain Prietok jaso zituen Arrasateko xake txapelketako sari potoloenak: 1.000 euro

eta garaikurra. Alejandro Franco eta Aitor Alcaidek 700 eta 500 euroko sariak jaso zituzten, hurrenez hurren.

ETXEKO JOKALARIAK

"Orokorrean, txapelketa ona izan da", azpimarratu zigun Josu Tornayk, "eta, batez ere, etxeko jokalaria gazteek egin duten lana gorai-patuko nuke". Kadetea izan arren, Asier Etxagibelek bederatzigarren tokian bukatu du txapelketa. "Asierrek berdinketa lortu zuen Alcaideren aurka, eta Hernandori irabazi egin zion", esan zigun Josu Tornayk.



AZKEN JARDUNALDIA Argazkian, egubakoitzeko jardunaldiko une bat.

GOIENKARIA

Alain Prieto > Txapelduna

"Zorte apur bat izan dut txapelketa irabazteko orduan"

M.B. > ARRASATE

Txapelketa irabazteko hautagai nagusia izan ez arren, lehia bakarra galdu du Alain Prieto abadiñoarrak.

Zorionak!

Eskerrik asko!

Espero zenuen Arrasate Hiria Txapelketa irabaztea?

Ez. Txapelketa hasi aurretik, sailkapeneko seigarren jokalaria nintzen. Bada, gero,

jokatutako partiduetatik bost irabazi eta bakarra galdu nuen, Alejandro Franco maisuaren aurka. Edozelan ere, txapelketa irabazteko, zorte apur bat izan dudala uste dut. Azkeneko jardunaldian, Aitor Alcaide aretxabale-tarraren aurka jokatu zenuen.

Gure arteko lehia erabakigarria zen txapelketa irabazlea erabakitzeo. Aitorrek zituena sari nagusia irabazteko aukera guztiak,

baina urduri samar jokatu zuen, nik baino urduriago. Nolako maila egon da Arrasate Hiria Xake Txapelketa jokatu duzuen jokalarien artean?

Maila oneko jokalaria egon dira; batez ere, Alejandro Franco eta Cristobal Lineres.

Zer egingo duzu irabazitako diruarekin?

Hasteko, afaria eta parranda lagunekin.



JOSETXO ARANZABAL

MENDI BIZIKLETA > IBILALDIA

Leizargarateko malda, zati gogorrena

Urteroko hitzordua izan zuten bizikleta zaleek atzo Eskoriatzan: 18. mendiko bizikleta ibilaldia egin zuten

Eguraldia lagun izan zuten parte-hartzaile eta antolatzaileek, eta, guztira, 241 lagun elkartu ziren Eskoriatzako plazan

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

Goizeko bederatzita eta erdietan hasi zuten 18. Eskoriatzako Mendiko Bizikleta Ibilaldia. Parte-hartzaileek bi aukera zuten: ibilbide luzea (41 kilometro) edo motza (22 kilometro). Eskoriatzako plazatik irten eta Leizargarateraino bi bideak berdinak izan ziren; gero, bide luzeak Gure Ametsa aldera hartu zuten, eta motzak, Uxar aldera.

241 PARTE-HARTZAILE

Eskoriatzako ibilbideak ospe handia du inguruko herrietan; hori dela-eta, lagun mordoa batzen da hasierako irteera puntuan. Atzo, 241 parte-hartzaile izan ziren. Gehien iritzi, ibilbidea oso polita, baina, era berean, gogorra izan zen, Leizargaraterako aldapa, batez ere.

Bestalde, hainbat txirrindulari galdu egin ziren bidean; amaieran esan zuten, ibilbidea erakusteko markak ez ziren ondo ikusten.



ERAÑA Irudian, txirrindulariak, Eraña inguruan.

JOSETXO ARANZABAL

NOLAKO LASTERKETA IZAN DA?

Jon eta Haritz
Aretxabaleta

"Ibilaldi polita izan da. Aukeran zeuden bi ibilbideetatik, bide luzea egin dugu. Gogorrena hasierako tarte izan da; eta, amaierarako, luze ere egin zaigu. Ez dugu arazorik izan bizikletarekin, baina, ibilbidean zehar, galduta ibili gara".

Roberto
Oñati

"Ahal izanez gero, urtero etortzen naiz Eskoriatzara. Ibilbidea polita da, baina baita gogorra ere. Oñena, baina, amaierako giroa izaten da".

Igor
Arrasate

"Hasierako 10 edo 20 kilometroak egin zaizkit gogorrak. Gero, ondo ibili naiz, eta ez dut arazorik izan. Eskoriatzako ibilaldira urtero etortzen naiz".

Jon
Oñati

"Ibilbidea oso polita izan da, ikusgarria. Nik azkeneko aldapan sufritu dut gehien, Marinetik San Adrianerako bidean. Momentu batean, galdu egin naiz".



> **LORCA**
García Lorcaen 'El romancero gitano' errezitatu zuten Elgetan > 26



> **TXAPELKETA**
Arrasateko lehiakideak daude Euskal Kantu Txapelketan > 26



> **LUPPI**
Federico Luppi 'El guía del Hermitage' lana antzeztuko du > 27



> **ARGAZKIAK**
Gaztelekuko argazki lehiaketako lanak, Oñatin ikusgai > 27

MUSIKA > 'KANTARI'

Amaia Txintxurreta oñatiarra da GOITBko 'Kantari' saio berriko aurkezlea

550 haur eta gaztek hartuko du parte karaoke ikuskizunean

Ekainaz geroztik ari dira haurrak abestiak prestatzen, eta irailetik urrira bitartean, dantzak prestatuz

MAIER URANGA > OÑATI

Amaia Txintxurretaren gidaritzapean hasi zen GOITBren *Kantari* karaoke ikuskizuna Oñatiko gaztelekuan. Zapatuan eta domekan, Debagoieneko 8 eta 12 urte bitarteko umeek eta hain ume ez zirenek ere, Oñatin izan zuten zita. Aurreikusten zen bezalaxe, jende ugari gerturatu zen gaztelekura. Joan den aste bukaran 120 gaztetxok parte hartu duten arren, bailarako 550 haurrek hartu zuen parte udan egindako aukeraketa saioetan. Taldeka zein bakarka, giro aparta eta alaia sortu zen Oñatin, eta haurrak oso urduri egon arren, izugarri ondo pasatu zuten.

Arantzazu Ugarte eta Maite Albes izan dira haurren koreografiaz arduratu direnak; lan gogorra egin dute, kontuan hartuta talde bakoitzari dantza bana prestatu behar izan diotela. Abestutako abesti guztiak euskarazkoak izan ziren, rock, pop, edo ska estiloa jorratuz.

Karaoke ikuskizunean parte-hartzeko izenematea ekainean ireki zuten Goiena Komunikazio Zerbitzuek. Orduan, talde bakoitzarentzat, abestia aukeratu eta CD bat eman zitzaion, udan entseatzeko aukera izan zezaten.

Hala, irailean hasi eta aurreko astera arte, entseatzeko ibili dira, dantza lokaletan, musika eskoletan, ikastetxeetan eta udal lokalen baten ere bai. Eta igarri zen, gainera, aurrez prestatzen ibili izan zirela, artista ugari ikusi genituen-eta zapatu eta domekan Oñatin. Esaterako, Itoiz taldearen *Lau teilatu* abestia ikaragarri ondo abestu zuen lau neskek taldeak, Amaia Monterooren parera.

Debagoiena kantari hasi da



KOREOGRAFIAK Parte-hartzaileek ondo ikasita zeuzkaten abestiak eta dantzak.

JOSETXO ARANZABAL

EZ DA LEHIAKETA

Iker Barandiaranek, *Kantari*-n erregidore lanetan dabilenak, adierazi zigun *Kantari*-ren ezaguerri nagusia lehiaketa ez izatea dela. "Karaoke ikuskizuna besterik ez da, jendeak ondo pasatzeko, kantua bultzatzeko eta lagunartean esperientzia ahazteazina izan dezaten", azaltzen du Baran-

diaranek. Garrantzitsuena parte hartzea da; nahikoa lehia duen XXI. mendean, parte hartzea bultzatzen dituzte umeak, lehiaketa nahikoa baita bizitza.

'KANTARI' KANTUA

Detalle gutxi utzi dute pentsatu barik *Kantari*-ko antolatzaileek. *Kantari* abestia Txus Arriaran

bergararrak eta Domentx Uzin plaentxiarrak egin dute. Propio karaoke ikuskizunerako sortu dute abestia Arrasate Musikaleko bi irakasle horiek, eta sekulako arrakasta izan du.

HURRENGOA, NOIZ?

Datorren astean, Eskoriatzako HUHEZI fakultatean jokatu

da *Kantari*. Azaro hasierako zubia jai izango dute. Gero, azaroaren 10ean eta 11n, Arrasateko amaia Antzokian eta, hurrengo Bergarako Jam aretoan izango dira. Gertutik jarraituko dugu Amaia Txintxurreta eta taldea; izan zuen harrera beroa izanda, seguru hurrengoak ere sekulako ikuskizuna izango direla.



Kantari Oñatin



Kantari dator aurten udazkena

MAIER URANGA > OÑATI

Uste baino erantzun hobia izan zuen *Kantari* karaoke ikuskizunak asteburuan Oñatiko gaztelekuan: heldu zein ume edo gaztetxo, guztiak ondo pasatzeko eta kantari ibiltzeko gogoz.

Gurasoak adurra zeriela gaztetxoak animatzen ibili ziren denbora guztian. Umeak, berriz urduri, aurrez prestatutako guztia gaizki irtetzearen beldur. Baina primeran joan zen guztia; beraz, guztiok pozik.


ABESTIAK

Euskal abestiak bakarrik abestu zituzten; estilo askotakoak, baina euskal artistenak: Oskorriren *Furra-furra*, Sorotan Beleren *Arratsalde honetan* edo Ken7ren *Ilargia*, besteak beste. Nolanahi ere, abesti ezagunak, guztiak elkarrekin abesten zituztenak.

Bi egunetan erantzun zuen ondo ikuslegoak, baina atzo, batez ere, Oñatiko gaztelekua toperaino bete zuten guraso, jarraitzaile eta lagunek.

Telebistan emateko, hainbat saiotan banatuko dituzte karaoke ikuskizun horiek. Izan ere *Kantari* grabatzen dabilza, eta, gero, GOITBn emitituko dituzte saiook.

Hurrengo, Eskoriatzako HUHEZIn izango da hitzordua; beraz, gogoarekin geratu zaretenok, apuntatu ezazue agendan.



HONELA IKUSI ZUTEN GAZTELEKUAN EGON ZIREN GURASOEK



Arantxa Elkoroiribe eta Marijo Gonzalo
Gurasoak

Sorotan Bele taldearen abestia kantatu zuten Arantxaren eta Marijoren alabek. "Ondo ikusi ditugu, akaso urduri samar", esan ziguten, "baina normala ere bada". Entseguak egiten "gustura" ibili direla eta zapatuko saiarako arropak taldeko kideen artean aukeratu zituztela onartu ziguten.



Amaia Erle
Gurasoa

Lau Teilatu kanta abestu zuen alabak, eta "nahiko urduri" ikusi zuen taldea Amaiak. "Entsegu asko egin dituzte, eta oso gustura ibili dira".



Itziar Agirre
Gurasoa

"*Eskutitza*" abestia kantatu dute; bada, alaba afoniko zegoen, eta dantza egin du bakarririk. Pena izan da, asko entseatu dute-eta", dio Itziarrek.



Josefina Guridi
Gurasoa

Amaia Txintxurretaren amak onartu zigun *Kantari* saioko aurkezlea "urduri samar" egon zela azken egunotan, "baina ondo egin duela uste dut".

ANTZERKIA > 'EL ROMANCERO GITANO'

Federico Garcia Lorcaren poesia iraultzailea, Elgetako kafe antzokian

Dantza, antzerkia eta gitarra izan ziren, barikuan, poesiaren lagun taula gainean

Txalo ugari jaso zituen Eibarko Maitaleak antzerki taldeak ordu beteko lana eta gero

MAIER URANGA > ARRASATE

Federico Garcia Lorcaren *El Romancero Gitano* antzezlanaren ikusteko aukera izan zuten Elgetako Espaloia kafe antzokira gerturatu zirenak. Ehunen bat lagun elkartu zen Espaloian, bariku gaueko, hamar eta erdiak aldera.

Maitalea Eibarko antzerki taldea izan zen Lorcaren poesia izugarri ondo jendeari gerturatu ziona. Poesia ez zen protagonista bakarrik antzeztokian; dantza klasikoa eta gitarraren laguntza ere izan zuten Granadako poetaren hitzek. Aktore lanetan, Maite Lorenzo, Eduardo Falces eta Ernesto Barrutia; dantzan, Amaia Bolunburu; eta gitarran, Erik Deza ibili ziren.

Gaur egun pil-pilean dauden gai sozialak dira Lorcaren obran ere nagusi, nahiz eta obra 1928an argitaratutakoa den. Andaluzian girotutako *El Romancero Gitano*



ANTZETZLEAK Antzerki Maitaleak taldeko aktoreak, Elgetako emanaldian.

JOSETXO ARANZABAL

obra odol eta maitasunezko istorioa da. Aipatzekoa, *Requiem por Federico* errezitatu zutenean, jendearen erantzun beroa, ikusleak gustura zeuden seinale.

EGILEA

1898ko ekainaren 5ean jaio zen, Granadako Fuente Vaqueros herrian, Federico Garcia Lorca. Madril eta Granadako uniber-

tsitateetan egin zituen Zuzenbideko ikasketak, eta Madrilgo Ikasle Egoitzan ezagutu zituen, besteak beste, Salvador Dali, Luis Buñuel eta Rafael Alberti.

Antzerki idazle, zuzendari, konposatzaile eta 27ko Belaunaldiko kide izan zen. Homosexuala eta ezkertiarra, frankistek fusilatzen zuten 1936an.

MUSIKA > EUSKAL KANTU TXAPELKETA

Arrasatearrak, 1. kanporaketaren ondoren, pozik

Hainbat arrasatearrek hartu zuen parte Urretxun jokatu zen Euskal Kantu Txapelketako kanporaketa saioan

M.U. > ARRASATE

Zapatuan, Urretxuko Labeaga aretoan, Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketaren lehenengo kanporaketa jokatu zen. Arrasateko Goikobalu taldeko zenbait kidek hartu zuen parte, eta Arrasate-tik lagun, familia eta jarraitzaile ugari gerturatu ziren.

Arrasaldeko seietan ekin zioten abesteari Gipuzkoako toki askotatik gerturatu ziren abeslariak, bakarka, bikoteka edo taldeka, bakoitza bere estiloan, instrumentuekin edo ahotsaren laguntzarekin bakarrik. Beraz,

sei kategoria daude, eta sei sari. Kantu sormenari ere sari berezia emango diote; Arrasateko Black Tie bikotearen kasuan, adibidez, eurek egin dituzte letrak, eta gitarra-joleak musika ere egin du.

Debagoieneko lehiakide guztiak Arrasatekoak eta, zehazki esateko, Goikobaluko kideak dira. Black Tie bikoteaz gain, beste bi talde daude lehiaketan, hirukote bat eta laukote bat.

INPRESIO ONA

Finala iristeko oraindik hiru kanporaketa jokatu behar ditu Kantuzale Elkartek. Arrasate-areiri, finalera pasatuko diren, azaroaren lehen esango diete; ordura arte, urduri zain egon behar. Rakel Murgiondo Goikobaluko ordezkariak esan zigun, ordea, parte-hartzaileak pozik eta ilusioz bueltatu zirela Arrasatera. Ikusi zuten mailarekin ere itxaropentsu agertu ziren, espe-



BLACKTIE Arrasateko lehiakideetako batzuk.

RAKEL MURGIENDO

ro baino lehia txikiagoa igarri baitzuten. Mendaroko Arriola Ahizpek egin zuten lana azpimarratu zuten, ordea, eta, lehiarik balego, eurekin izan litzatekeela esan zuten. Finala azaroaren 10ean izango da, Donostiako Antzoki Zaharrean.

EUSKAL KANTUZALE ELKARTEA

Euskal Kantuzale Elkartek antolatzen du, beste behin ere, topagune hori, Urretxun. Helburua kantuzaleen inguruan dabilzanak elkartzea da, horrela, kantuzaleen osasuna bermatzeko.

Ekintza asko egin dituzte urtean zehar, eta horietako bat da txapelketa hori. Gipuzkoako kantuzale txapelketa horri esker, 15-16 urtetik gorako abeslariak plazaratzen dituzte.

Irakasleentzako musika ikastaroak, kalean kantatzeko ekimenak edo kantuzale afariak ere antolatzen dituzte, besteak beste.



IRAKASLEA Patxi Montero izango da munduko dantzen irakaslea.

GOIENKARIA

IKASTAROA > DANTZA

Munduko dantzen ikastaroa dago berriz ere Eskoriatzan

Patxi Monteroren eskutik oraingoan ere, zapatuan zen hastekoa Eskoriatzan Amuskak antolatu duen munduko dantzen ikastaroa

MAIER URANGA > ESKORIATZA

Eskoriatzan, zapatuan hastekoa ze arren munduko dantzen ikastaroa, azkenik ez zen posible izan. Jendea gogotsu zegoen, udako denboraldiak iraun duen bitartean ikastaroa geldirik egon baita. Hala ere, txangoan joan ziren Amuskako kideak, eta horregatik ezin izan zuten ikastaroa zapatu horretan hasi.

Hilean behin elkartzeko dira, hileko hirugarren zapatuan, hain zuzen ere. Bost euro ordaindu beharko da saio bakoitzeko, momentuan bertan. Aurreko denboraldian joateko aukerarik izan ez zutenek jakin behar dute edonork har dezakeela parte, dantzan ez dakienak ere bai. Ondo pasatzea da helburu nagusia eta, esan zigutenez, edozein momentutan

sar daiteke inor taldean, saio batek hurrengoarekin inongo zerikusirik ez dauka eta.

ARETXABALETA ETA GATZAGA

Aurtengo ikasturtean, Aretxabaleta eta gatzagarrei ere egin die deialdia. Gizonezko zein emakumezkoek har dezake parte, zenbat eta talde handiagoa orduan eta dibertigarriagoa izango baita saioa.

Eskoriatzan, aurreko urtean ere, oso esperientzia ona izan zuten, baita Elgetan ere. Elgetan, domeketan egingo dute; argibideak, Espaloia antzokian.

OÑATI > ERAKUSKETA

Batetik-bestera argazki erakusketa dago Oñatin

Ikusleen parte-hartzea eskatu dute, ikusleek aukeratuko dute-eta irabazlea

SEI URTE GEROAGO

Baziren sei urte Oñatiko gaztelekukoek Batetik-bestera lehiaketa antolatzen ez zutelako. Lehen udako argazki eta kontaketa lehiaketa bezala antolatu izan zuten arren, aurtun, udako argazki lehiaketa moduan bakarrik antolatu dute, Oñatin mota horretako ekingen falta igarri eta gero.

Sari banaketa azaroan egingo da. Erakusketa amaitu eta gero, gaztelekuko antolatzaileek irabazleen izen-abizenak jakinaraziko dituzte. 200 eta 150eko bi sari egongo dira eskuragarri, baina bata bestearekin pilatuezinak.

Modu eta tamaina askotako argazkiak, beraz, herritarren bozkaren zain egongo dira arratsaldero, urriaren 31ra arte, Oñatiko gaztelekuko kuboan.

M.U. > OÑATI

Urriaren 31ra arte, Batetik-bestera lehiaketara aurkeztu diren argazkiak ikusteko aukera dago Oñatiko gaztelekuan. Erakusketaz egunero gozatzeke aukera egongo da, arratsaldez bakarrik, 18:30etik 20:00ak arte.

Gaztelekuko arduradunek 23 argazki batu dituzte, denak 30 urtetik azpikoek egingakoak, horixe zelako parte hartzeko baldintza bakarra. Berritasun moduan, aurtun, ikuslea izango da epaimahai, gerturatzen diren botoekin aukeratuko dute-eta irabazlea.



ARGAZKIAK Oñatiko gaztelekuko kuboan dago erakusketa.

GOIENKARIA



JOSETXO ARANZABAL

'Mokaua' ikuskizun interaktiboa atzo

Logela Multimedia Elorrioko taldeak atzo aurkeztu zuen *Mokaua* lan interaktiboa Arrasateko Amaia Antzokian. Jende mordoak erakarri zuen musika, irudiak eta mugimenduak nahastu zituen ikuskizunak.

Gerturatu zirenek ez zuten kontzertu soil bat bakarrik ikusi, umoreak eta antzerkiak ere badaukate pisurik-eta lan horretan.

ANTZERKIA > 'EL GUIA DEL HERMITAGE'

Federico Luppi aktorea Arrasateko Amaia Antzokian izango da datorren domekan

Herber Morote perutarren 'El Guia del Hermitage' lana ikusteko aukera egongo da urriaren 28an, domeka

M.U. > ARRASATE

Federiko Luppi aktore ezagunak, Ana Labordeta eta Manuel Callaurekin batera, Jorge Einesen gidaritzapean, Herber Morotoren *El guia del Hermitage* lana aurkeztuko du Arrasaten. Hiru aktore bakarrik diren arren, atzetik beste 25 pertsonako lantalde profesionala dago. Eszenatokia, atrezzoak edo jantziak detaile osoz zainduko dituzte. Kritika ezin hobekak jaso ditu ikuskizun horrek, eta 2003an Donostia Hiria antzerki saria irabazi zuen.



ANTZEZLANA Aktoreak, *El guia del Hermitage* lana antzeztzen.

GOIENKARIA

SOBIETAR BATASUNEN MUSEOA

Alemanak Leningradora sartu aurretik, sobietar gobernua Hermitage museoko obra guztiak Uraletara bidaltzea lortu

zuen. Museoko gidari zaharrak, ordea, bisita gidatuekin jarraitzea erabakiko du, margoak dagoeneko ez dauden arren. Luppi izango da museoko gidaria.

astea GOITBn

Astelehena, 22



> **Arrasateko Xake Txapelketako azken berriak 21:47**

Xabier Urtzelai kazetariaren esku-tik, Arrasateko Xake Txapelketako irabazlea ezagutuko dugu. Gainera, errugbia eta futbola ere izango da.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Teknopolis.
- 14:15 Ikusten.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Ilunpean
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Klip@.
- 16:15 Kirolari.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ur eta Lur.
- 18:15 Eltze beroa.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Musikantoi.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmaillatik.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusten.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Ikusmira.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 23



> **Perretxiko bila ibiliko da Julen Iriondo 23:30**

Asteko erreportaje saioa perretxiko gainekoa izango da, Julen Iriondo kazetariarekin eta Jose Mari Larrañaga bergararrarekin.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Horry.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Eltze beroa
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmaillatik.
- 16:15 Ikusmira
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Horry.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean .
- 18:15 Klip@.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Harmaillatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Horry
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea
- 22:15 Harmaillatik.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusten.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 24



> **Dilisten gainean egingo dute berba 'Zaharrak berri'-n 20:15**

Aitziber Aranburuzabalak gidatzen duen tardean, dilisten gainean arituko da Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarra.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Erreportajea.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Ur eta lur
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Klip@.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Harmaillatik.
- 18:15 Eltze beroa.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Zaharrak berri .
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea.
- 22:15 Teknopolis.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Ur eta lur.
- 00:15 Emisio amaiera

Eguena, 25



> **Euskal musikako abesti ezagunak 'Musikantoi'-n 22:15**

Maidar Arregi kazetari oñatiarra aurkezten duen musika saioan, Euskal Herriko musika taldeen abesti ezagunenak eskainiko dituzte.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zaharrak berri.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Marazki bizidunak.
- 14:15 Ikusmira.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Eltze beroa.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Erreportajea.
- 17:15 Horry.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Eltze beroa.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Horry.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea.
- 22:15 Musikantoi.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ur eta lur.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Ilunpean.
- 00:15 Emisio amaiera

Egubakoitza, 26



> **Vanessa Sanchez kazetaria 'Ilunpean' saioan 22:15**

Teleberri-ko aurkezlea, Vanessa Sanchez kazetari arrasatearra, izango da Iker Barandiaranen gonbidatua *Ilunpean* saioan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musikantoi.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Ikusten.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Eltze beroa
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 PGM berezia.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Erreportajea .
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Kirolari.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> **Igo autobusera! merkatar txikiak 10:00**

Arrasateko merkatar txikien arazoak eta horien kezka izango dituzte berba-gai, gaur, 11:30ean. Horretarako, Ibai-arte merkatarien elkarte-kide Jesus Mari Elkoro elkarrizketatuko dute Arrasate irratiko lankideek.

Astelehenetik egubakoitzera

- 10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepaso
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion Agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31 irratia@goiena.com)
- 11:55 Arrasateko albisteak, labur
- 12:05 Euskadi irratiko albistegia
- 12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak.
- 13:00 Euskadi irratiko albistegia
- 14:00 Igo autobusera! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate irratiko albistegi laburra.

Zapatua

- 10:00 Asteko gainbegiratua.
Asteak eman duen onena eskainiko dute asteko gainbegiratuan

Domeka

- 10:00 Asteko gainbegiratua.
Asteak eman duen onena eskainiko dute asteko gainbegiratuan

gertutik



Urko Aristi
Kazetaria

"Telebistan mingaina astindu beharra besterik ez dago!"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Urko Aristi (Arribe, Nafarroa) kazetari Nafarroako Unibertsitatean ikasi zuen Ikus-entzunezko Komunikazioa. Bitartean, Larrauneko *Mailope* aldizkarian aritu zen eta baita Lekunberriko Aralar Irratian ere. Gero, ETBko *Gaur egun eta Teleberri*-n aritu zen; handik *Eguraldia*-ra eman zuen pasoa eta, ondoren, *Bertatik Bertara*-n eta *Eitb Kultura*-n ere aritu izan da. Orain, *Bi errepidean* saioan ikusten dugu, eta, baita *Eguraldia* aurkezten ere.

Irratia, prentsa idatzia eta telebista, denetarik egin duzu. Zein duzu gustukoena?

Telebista da gehien gustatzen zaidana; esan behar dut telebista ikusle amorratua ere banaizela. Eroso sentitzen naiz telebistaren aurrean, eta erraza egiten zait; mingaina astindu beharra besterik ez dago! Berriketa askokoa naiz...

Askorentzat, eguraldi gizona zara. Kalean zer esaten dizute?

Orain arte, jendea ez zen eguraldiaz kezkatuta etortzen; traje itsusia jartzen zidatela esaten zidaten denek. Orain, traje barik ateratzen naizenez, eguraldi kontuekin etortzen da jendea; ez dugula asmatu, euria egin duela... Baina, zorionez, gero eta gehiago asmatzen dugu; izan ere, aurrerapen teknologikoa gero eta handiagoa da.

Gehien inguratzen zaizkidanak 60 urtetik gorako emakumeak izaten dira.

Eguraldi aurkezleen artean, zein duzu gustukoena?

Etxekoak, duda barik! Andoni Aizpuru, adibidez, oso ona da; eta, alor profesionalean, *aitatxo* bat izan dela esan dezaket. Bestalde, Ana Urrutiak ere asko lagundu dit; gus-tatuko litzaidake haren irribarrearekin aurkeztea, baina...

Bi errepidean saioan lankide berria duzu. Nolakoa izan da aldaketa?

Ez da samurra izan, aurkezleaz gain, lantaldean ere aldaketa asko egon dira-eta. Orain arte, Andoniren babesa izan dut; baina, orain, ni naiz ardura hori duena. Alex Sardui ni baino ganberroagoa da; orain, nik daukat serio papera.

asteko hitzorduak

Antzerkia




OÑATI

> **Bihar eta etzi, umeentzat ipuin kontaketa saioak haur liburutegian**

Arratsaldeko seietan izango dira, kultura etxeko haur liburutegian. Ipuin kontaketak 8 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta daude; ipuinak entzuteaz gain, panpinek ere bat egingo dute ikuskizunean.

Erakusketa



ARRASATE

> **Fernando Martinezen lanak Harresi aretoan ikusgai daude**

Hilaren 28ra arte egongo dira ikusgai margolari arrasatearraren lanak Harresi aretoan. Pintura akrilikoak dira, eta erakutsita dauden lanak eskuratzeko bidea izango da: tamainaren arabera, 300 eta 700 euro bitartean.

Berbaldia



ARETXABALETA

> **Bularreko minbizia izango dute berbagai bihar, Iralabarri**

Bereziki 50 eta 69 urte bitarteko emakumei zuzenduta, Kattalin elkarte bularreko minbiziaren gainean arituko da. Bihar, martitzena, izango da hitzaldia, 18:00etan, Iralabarri plazako 6. atarteko bideo gelan.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Hamar urte
barru,
berriro!

Oñatiko Txantxiku Ikastolako ikasle ohien bazkaria izan zen zapatuan. Zubikoako kiroldegian batu ziren 355 lagun inguru, aspal-diko kontuak berriro gogora ekarri eta ondo pasatzeko asmoarekin, denak ere.

Bazkariaren ondoren, kantuan egiteko garaia iritsi zen. **Julen Romaretazabala** bertsoan bota zuen bezala, **Lolik** irakatsi digu solfeo eta kantua. Baina, zapatuan, taula gainean kantuan izan ziren askok ahaztu egin dute ikastola garaian ikasitakoak. Batzuek hobe izango dute dutxan ere ez kantatzea!

"Latzenek
egubakoitzean
Laudion egin zuen
kontzertuan oñatiar
mordoa egon zen"

Bestalde, egubakoitzean Oñatiko hiru musika taldek jo zuten Tolosan. Aretoa Oñatiko jendez beteta zegoen. Beste musikazale batzuk, berriz, **Latzenen** kontzertua entzuten egon ziren Laudion.

Eskoriatzako saskibaloia elkarteko neskek afaria izan zuten zapatuan, boteko diruarekin. Entrenamenduetara berandu joan, edo jokoan egiten duten falta bakoitzeko, jokalaria eta teknikoak diru kantitate bat sartu behar dute itsulapikoan. Hala, noizean behin, itsulapikoa apurtu eta afaria egiten dute: zapatuan, Garagartzako **Arteagara** joan ziren. Saskibaloian onak dira, baina puntueltasuna ez dute asko errespetatzen neska hauek! Edo hori dirudi, behintzat...

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ospakizunak, ezkontzak, txutxu-mutxuak, bazkariak, jaiak...

Tarte hau zure
txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpenaedo bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com

asteburuko albuma



Gastronomia eta folklore jaia. Gaztela eta Leon, Galizia, Errioxa, Extremadura eta Euskal Herriko gastronomiak eta folkloreak bat egin zuten Aretxabaletako plazan, domeka goizean. Jateko, nahi adina aukera: ezti, zezina, erroskilak, olagarroa, enpanadak, hestebe-teak, urdaiazpikoa, txitxiburduntziak, gazta, odolostea eta txorizoa, guztia ardoz eta uxualz bustita. Baina guztia ez zen jatekoa izan, giroa alaitzeko dantza eta musika erakustaldiak ere egon baitziren, lurralde horietako guztietako ohituen erakusgarri.



Afari solidarioa. Oñatin, Bidaurretako fraideen lokalean, afari solidarioa egin zuten 60 lagunek egubakoitz iluntzean. Jateko, misio taldekoek eurek gertatutako patata tortillak eta letxuga, eta, postreerako, bi hitzaldi: Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritzako kide Leire Atxegak Haitin egindako dispensarioaren berri eman zuen diapositiben bidez; eta, bestalde, Boliviako altiplanoan bizi den Esther Beitia misiolari oñatiarrak hango egoera izan zuen hizpide. Kantuan amaitu zuten afaria misio taldekoek eta lagunek.



Haur kabareta. Agerre Teatro eta Mi Cabeza que Habla konpainiek elkarlanean sortutako ikuskizuna izan zen Oñatiko Santa Ana aretoan atzo arratsaldean. Umeendako antzerkian, edozein objektuarekin musika egiteko gai zirela erakutsi zuten aktoreek, kabaret dibertigarriaren bidez. Horrela, aho zabalik begira egon ziren umeei azaldu nahi izan zieten guztioz bihur gaitzkeela musikari eta, irudimena eta musika uztartzuz gero, ez dagoela mugarik artisten pare jarduteko. Horretarako, ikus-entzuleak euren kantuetan sarrarazi zituzten aktoreek. Musika ez ezik, dantza, txotxongiloak eta animazio jokoak ere izan ziren umeen gozagarri Santa Anan.

zorion agurrak



ARRASATE
Irati Mellado
Urriaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak aita, ama eta Nerearen partetik.



ARRASATE
Gorka Zubizarreta eta Xabi Mondragon
Urriaren 17an, urtebetetzea. Zorionak bioi lagunena eta familiaren partetik! Ondo-ondo pasatuko zenuten eguna, ezta?




ARRASATE
Imanol Gallego
Urriaren 18an, urtebetetzea. Zorionak lagunena partetik. Muxu asko eta horrela jarraitu!



BERGARA
Iñaki Olabarria
Urriaren 18an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik eta, bereziki, Alazne, Malen eta Ikerren partetik.



OÑATI
Eli Iñurritegi
Urriaren 19an, urtebetetzea. Zorionak lagunena eta familiaren partetik, guapisima! Muxu handi bat!



OÑATI
Maddi Azkorbebeitia
Urriaren 19an, 2 urtetxo! Zorionak eta muxu handi bat lagunena partetik, batez be Ane eta Urkoren partetik. Ondo pasauko zeben!



ARRASATE
Uxue Lopez Lopez de Bergara
Urriaren 20ean, urtetxo bat! Zorionak, bihotza, aitatxo eta amatxoren partetik!



OÑATI
Ibai Aranburu Ferreiro
Urriaren 20an, 3 urte. Zorionak etxeko guztien partetik, eta muxu handi bat.



BERGARA
Alazne Olabarria
Urriaren 21ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik eta, bereziki, Malen, Iñaki eta Ikerren partetik.



ARRASATE
Urki Garitaonandia Uriarte
Urriaren 21ean, 2 urte. Zorionak etxekoen partetik, Ixoneren partetik.



BERGARA
Malen Olañeta
Urriaren 21ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik eta, bereziki, Alazne, Iñaki eta Ikerren partetik.



ARRASATE
Ekiñe Casado
Urriaren 22an, 5 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunena partetik.



ARRASATE
Txaro Azkarate
Urriaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, tia Txaro. Familiako guztien partetik.



ESKORIATZA
Ekaitz Oñate Uribe
Urriaren 23an, 8 urte. Zorionak, *flipau!* Amatxo, Naiara eta Ilargi.



ARETXABALETA
Odei Vazquez
Urriaren 24an, 15 urte. Zorionak eta urte askotarako, anaiaren eta gurasoen partetik.



BERGARA
Iraia Garitonandia
Urriaren 24an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat Bergarako sendiaren partetik, bereziki, Hodei eta Unaxeren partetik.

jaiotakoak



Joseba Unamuno Uribetxebarria
Bergara > 3,970 kilo. Urriaren 21an. Gurasoak: Miren (Arrasate) eta Roman (Bergara). Argazkian, Joseba jaioberrria, kuman lo.



Manex Lazpiur Leturia
Bergara > 3,850 kilo. Urriaren 20an. Gurasoak: Miren (Bergara) eta Miguel Angel (Bergara). Argazkian, Manex jaioberrria, lo.



Ane Goya Urain
Arrasate > 3,650 kilo. Urriaren 21ean. Gurasoak: Irune (Arrasate) eta Xabi (Idiazabal). Argazkian, Ane jaioberrria, gurasoekin.



Markel Zubia Iturbe
Arrasate > 3,970 kilo. Urriaren 15ean. Gurasoak: Agurtzane (Arrasate) eta Rober (Arrasate). Argazkian, Markel jaioberrria, gurasoekin.



Peru Arrese Sanpedro
Arrasate > 3,170 kilo. Urriaren 15ean. Gurasoak: Lur (Arrasate) eta Eneko (Arrasate). Argazkian, Peru jaioberrria, bapo lo.



Markel Errasti Altube
Arrasate > 3,550 kilo. Urriaren 17an. Gurasoak: Naiara (Arrasate) eta Asier (Aretxabaleta). Argazkian, Markel jaioberrria, aitarekin.



David Zapata Londoño
Antzuola > 2,810 kilo. Urriaren 17an. Gurasoak: Diana (Colombia) eta Alvaro (Colombia). Argazkian, David jaioberrria, amarekin.



Eñaut Uribarren Arrese
Aretxabaleta > 3,560 kilo. Urriaren 18an. Gurasoak: Gotzone (Aretxabaleta) eta Niko (Arrasate). Argazkian, Eñaut jaioberrria, amarekin.



Eukén Martín Espeso
Aretxabaleta > 3,200 kilo. Urriaren 18an. Gurasoak: Amaia (Aretxabaleta) eta Ibon (Arrasate). Argazkian, Eukén jaioberrria.



Iker Nevado Santander
Eskoriatza > 3,100 kilo. Urriaren 17an. Gurasoak: Laura (Aretxabaleta) eta Angel (Eskoriatza). Argazkian, Iker jaioberrria, amarekin.



Irati Iturbe Murgiondo
Aretxabaleta > 3,720 kilo. Urriaren 18an. Gurasoak: Ainhoa (Arrasate) eta Gorka (Aretxabaleta). Argazkian, Irati jaioberrria, lo.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Oihana Maritorea > Aktorea

"Lotsatia naizelako hasi nintzen antzerkian"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Oihana Maritorea aktore donostiarra ETBko hainbat telesailetan hasi zen neskailatan, eta gaur egun filmetan lanean hasi da. Geldiezi-na da Maritorea.

Zurriolako ikastolan hasi zinen antzerkia ikasten?

Bai, ikasgai hori geneukan ikastolan. Horren ostean, orduz kanpo, antzerki eskolan izena eman nuen. Oso lotsatia naiz, eta amak sartu ninduen han, lotsa kentzeko. Pixkanaka zaletu nintzen antzerkian, eta gaur arte.

Baina oraindik zara lotsatia?

Bai. Kendu dut apur bat, baina oraindik lotsatia naiz. Jendek esaten dit, nolatan lotsatia izanda, aktore izan naitekeen. Horren abantaila da beste pertsonaia bat interpretatzerakoan askeagoa naizela.

Gaztetxotan, Donostiako Zinemaldian epaimahai gazteko kide izan zinen?

Bai; gura dutenek aukera dute 18 eta 21 urte bitartean esku hartzeko. Hamar egunetan 40 film

ikusten genituen. Askotxo zen, baina film desberdinak ikusteko aukera eman zidan.

Zelakoa litzateke zure bizitza dantzarik gabe?

Nire pasioa da. Asko disfrutatzen dut, eta dantza egiten dudanean, eraldatu egiten naiz.

Psikodantza sendabidea da askorentzat, baina zuretzat, zer da?

Orain dela hamar urte hasi ginen Verdini irakasleari laguntzen. Down sindromea daukate-

nei dantza irakasten die, eta hainbat ikuskizun egin ditugu. Gozarena da niretzat hor esku hartzea. Down sindromea daukate- nek asko ematen dute: ikaragarriak dira ematen dituzten besarkadak, zelako ondo pasatzen duten.

Enpresa Zuzendaritza eta Administrazio ikasketak bukatu berri dituzu. Gustuko duzu alor hori?

Diruaren kontua ez dut oso gustuko. Ez dut nire burua bulego baten lanean, geldi, ikusten. Aktoreen lana oso aldatkorra da, eta gurago nuen beste zerbait ikastea.

Hortaz, gurago duzu, ahalbada, aktore lana egitea?

Bai. Une honetan, beldurra ematen dit enpresa baten lanean hastea, aktore lana alboratzeko arriskua dago-eta.

Madrilera joko duzu lan bila?

Zalantzan nago. Beldurra ematen dit hara joateak, baina, beharbada, proba bat egingo dut, han zer dagoen ikusteko.



ARRASATEN Oihana Maritorea Arrasaten.

IKER BARANDIARAN


TEST-A

Herria: Donostia. **Adina:** 23 urte.

Ikasketak: Enpresa Zuzendaritza eta Administrazioa. **Zaletasunak:** Dantza, bidaiatzea, parranda, musika jotzea... **Gustuko duzun liburu bat?** Gioconda Belliren *La mujer habitada*. **Aspaldian entzuten zabiltzan musika talde bat?** Gotan Project. **Zer garraio erabiltzen duzu gehien?** Gidatzea ez dut gustuko. Batzuetan bizikleta ibiltzen dut, baina Donostian batez ere oinez ibiltzen naiz.

www.goiena.net

Uholdeetarako edo antzeko hondamendi handietarako gertatuta gaudela uste duzu?



biharamuna

Marijo Deogracias

Memoriaz, oroimenaz... kontatu beharraz


El País, tilde urdin eta guzti, eskuratzeko zain nintzen atzo. **Goio Aranari** irakurri nion Superbai blogean atzo zirela egunkariaren diseinu berria estreinatzeak eta ikusmina piztu zitzaidan; gainera, horri esker, -eta **Pedro J.**ri egunkariak opariak egitea gusatu ez arren, atzo bere *Mundo*-n aitortzen zenez- **Oscar Marinek** diseinatutako erlojua eskuratu dut, doan (diseinatzailea aipatzen dut, erlojuak gehiago merezi ez duelako).

Diseinuak, **Superbaik** idatzi du, ez du aparteko aipamenik merezi, baina edukietan intereseko letra asko topatu nituen: Zioen **Maragallek**, *Eisenhower gaixo-*

tasunaz, "identitatea galtzea are zailagoa dela denek ezagutzen zaituztenean". Borroka berriari ekingo dio Kataluniako presidente baino Bartzelonako alkate izateagatik ezagunago egin zenak. Memoriari eusten eta, **Doris Lessing** 89 urteko literatura Nobel saridunak egunkari berean zioena gogoan izaten saiatu behar-ko dugu guztiok ere: "Gerra eta memoria ez dira inoiz amaitzen". Horren adibide, egunkarian zetorren hurrengo erreportajea: San Cristobalgo gotorlekuan hilobiratutakoen ondorengok, Aranzadi Zientzia elkartearen laguntzarekin, han hilda zituztenen memoria errekeratzen ari direla.



eguraldia



MINIMOA
+05

MAXIMOA
+20

Goizean, erdi eta goi-hodeiak ikusiko ditugu, baina giro eguzkitsua izango da. Arratsaldean, haizeak mendebaldera egingo du.

www.euskalmet.euskadi.net

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

Fagor sukaldeko altzariak, %25eko deskontua lau modelotan. Azaroaren 18 arte. Zatoz eta ikus itzazu!

